# MEMORIA2005TXOSTENA

www.emakunde.es

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# JARDUERA
# MEMORIA2005TXOSTENA
# DE ACTUACIÓN



| | |
|---|---|
| **Título:** | Memoria. Emakunde 2005 |
| ***Izenburua:*** | Txostena. Emakunde 2005 |
| **Edita:** | Instituto Vasco de la Mujer/Emakunde |
| ***Egilea:*** | Emakumearen Euskal Erakundea/Emakunde<br>Manuel Iradier, 36<br>01005 VITORIA-GASTEIZ<br>Tfno./Tfnoa.: 945.01.67.00<br>Fax/Faxa: 945.01.67.01<br>E-mail: emakunde@ej-gv.es<br>www.emakunde.es |
| **Diseño y Elaboración:** | Instituto Vasco de la Mujer/Emakunde |
| ***Diseinua eta Lanketa:*** | Emakumearen Euskal Erakundea/Emakunde |



© Administración de la C.A. de Euskadi
Euskal AEko Administrazioa



| | |
|---|---|
| **Tirada/*Ale-kopurua:*** | 1.500 ejemplares/ale<br>V-2006 |
| **Fotomecánica y Fotocomposición:** | Rali, S.A. |
| ***Fotomekanika eta Fotokonposaketa:*** | Bilbao |
| **Impresión y Encuadernación:** | Rali, S.A. |
| ***Inprimaketa eta Koadernaketa:*** | Bilbao |
| **Depósito Legal/*Lege-gordailua:*** | BI-2016-06 |

# Presentación

IZASKUN
MOYUA
PINILLOS
Directora General

MIREN ARANTZA
MADARIAGA
ABERASTURI
Secretaria General

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer elabora todos los años su *Plan Anual de Actuación* y su correspondiente *Memoria de Ejecución*. Este año, con el objetivo de dar a conocer sus actividades así como su propia estructura y funcionamiento, se ha elaborado la presente publicación bajo el título *"Memoria de Actuación de Emakunde. 2005"*.

En esta *Memoria*, se recopilan las actuaciones principales que ha diseñado, impulsado y promovido Emakunde en cumplimiento del correspondiente *Plan Anual de Actuación* que, a su vez, se enmarca en el *"III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Enfoque de Género en las Políticas Públicas"*.

Esta publicación se estructura en ocho capítulos. Los tres primeros recogen las actuaciones correspondientes a los dos propósitos principales que orientan el *III Plan*: la Capacitación de la Administración para el diseño y ejecución de Políticas Públicas sensibles al Género; y la Sensibilización y Promoción de la Participación Social que contribuya a una mayor eficiencia de las mismas. Así, el primer capítulo expone las acciones de Impulso, Coordinación, Asesoramiento y Seguimiento de las Políticas Públicas, hace referencia a las acciones llevadas a cabo con los tres niveles de la administración e incluye aquellas que se desarrollan en el marco de los Fondos Europeos. El segundo y tercer capítulos recogen las acciones dirigidas a la sociedad e incluyen, por una parte, aquellas destinadas a promover y fortalecer el Asociacionismo de las Mujeres y la Participación de las Organizaciones Sociales y Empresariales en el logro de los objetivos del *III Plan* y por otra, aquellas dirigidas a la Sensibilización Social.

En el capítulo tercero, en el apartado relativo al Asesoramiento Jurídico, además de recoger la actividad ordinaria anual del Instituto en esta materia, se menciona también el trabajo realizado por éste con relación al desarrollo y aplicación de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres* que aprobó el Parlamento Vasco el 18 de febrero de 2005 y que tiene por objeto establecer los principios generales que han de presidir la actuación de los Poderes Públicos en materia de Igualdad de Mujeres y Hombres, así como regular un conjunto de medidas dirigidas a promover y garantizar la igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida y, en particular, a promover la autonomía y a fortalecer la posición social, económica y política de aquéllas.

Los cuatro siguientes recogen las actividades que Emakunde desarrolla con el fin de crear y facilitar instrumentos que soporten las actuaciones que se han de desarrollar en los ámbitos mencionados anteriormente. Se incluyen las actividades de Formación, de Asesoramiento Jurídico e Información, de Estudios y Publicaciones y la actividad del Centro de Documentación. El octavo recoge, finalmente, las actividades del Instituto tanto en el marco de la Colaboración e Información con Otras Instituciones de fines similares a las del Instituto, de otras Comunidades Autónomas, del Estado, del Ámbito Europeo e Internacional, como aquellas dirigidas a promover la participación de las mujeres y la incorpo-

# Aurkezpena

IZASKUN
MOYUA
PINILLOS
Zuzendari Nagusia

MIREN ARANTZA
MADARIAGA
ABERASTURI
Idazkari Nagusia

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak urtero-urtero egiten ditu *Urteko Jarduera Plana* eta horri dagokion *Gauzatze Memoria*. Aurten, erakundearen jarduerak, egitura eta funtzionamendua ezagutarazteko, argitalpen hau landu du, *"Emakunderen Jarduera Txostena. 2005"* izenburuarekin.

*Memoria* horretan, Emakundek *Urteko Jarduera Plana* betetzeko diseinatu, bultzatu eta sustatu dituen jarduera nagusiak biltzen dira; hain zuzen ere, plan hori *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana. Genero Ikuspegia Politika Publikoetan"* izeneko planaren barruan kokatzen da.

Argitalpen hau zortzi kapitulutan egituratuta dago. Lehenengo hiru kapituluetan jasotzen diren jarduerak *III. Plana* orientatzen duten bi proposamen nagusi hauei dagozkie: batetik, Administrazioa Genero-politika Publikoak diseinatu eta aplikatzeko trebatzeari, eta, bestetik, Sentsibilizazioari eta Gizartearen Parte-hartzea sustatzeari, politika horien eraginkortasuna handitzeko. Hala, lehenengo kapituluan, Politika Publikoan Sustapena, Koordinazioa, Aholkularitza eta Segimendua Egiteko Ekintzak azaltzen dira, eta administrazioaren hiru mailetan aplikatutako ekintzak aipatzen dira, Europako funtsen esparruan garatzen direnak barne. Bigarren eta hirugarren kapituluetan, berriz, gizartearentzako ekintzak biltzen dira: batetik, *III. Planaren* helburuak lortzeko, Emakumeen Asoziazionismoa eta Gizarte- eta Enpresa-erakundeen parte-hartzea sustatzea eta indartzea helburu dutenak, eta, bestetik, Gizarte-sentsibilizazioa helburu dutenak.

Hirugarren kapituluan, Aholkularitza Juridikoari dagokion atalean, Erakundeak gai horretan urtean burutu ohi duen ohiko jarduera jasotzeaz gain, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* garatu eta aplikatzeko egindako lana aipatzen da. *Legea* Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 2005eko otsailaren 18an, eta haren helburua da, alde batetik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alorrean Botere Publikoen jarduera zuzendu behar duten oinarri nagusiak finkatzea, eta bestetik, bizitzako alderdi guztietan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatu eta bermatzeko eta emakumeen autonomia eta egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sustatzeko duten neurriak arautzea.

Hurrengo lau kapituluetan Emakundek garatutako hainbat jarduera biltzen dira; jarduera horien helburua zenbait tresna sortzea eta erraztea da, aurrez aipatutako esparruetan garatu behar diren jarduerei eusteko. Honako alor hauei dagozkien jarduerak biltzen dira: Prestakuntza, Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa; Ikasketak eta Argitalpenak; eta Dokumentazio-zentroaren jarduera. Azkenik, zortzigarren kapituluan biltzen diren jarduerek honako helburu hauek dituzte: batetik, erakundearen antzeko helburuak dituzten beste erakunde batzuk (beste Autonomia Erkidego batzuetakoak, Estatukoak edo Europako zein nazioartekoak) laguntzea eta informatzea; eta, bestetik, emakumeen parte-

ración de la perspectiva de género en las Políticas y Planes de Cooperación al Desarrollo que se apoyan y desarrollan desde nuestra Comunidad.

Emakunde desea testimoniar su agradecimiento a todas aquellas personas que con su contribución han hecho posible esta *Memoria de Actuación* que, a buen seguro, posibilitará el conocimiento de las iniciativas llevadas a cabo por el Instituto para implicar a todas las Administraciones Públicas Vascas y afectar de modo transversal a todos los sectores de nuestra sociedad en la consecución de la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres.

Vitoria-Gasteiz, abril de 2006.

hartzea bultzatzea eta gure Erkidegotik garatu eta bultzatzen diren Garapenerako Politika eta Planetan genero-ikuspegia txertatu dadin sustatzea.

Emakundek eskerrik beroenak eman nahi dizkie beren laguntzarekin *Jarduera-txosten* hau egitea ahalbidetu duten guztiei. Erakundeak hainbat ekimen jarri ditu abian, Euskal Administrazio Publiko guztiak, eta, zeharka, gure gizartearen sektore guztiak inplikatzeko, Emakume eta Gizonen arteko Aukera-berdintasuna lortzeko ahaleginean. Eta uste osoa dugu landutako *Memoria* hau laguntza handikoa izango dela ekimen horiek guztiak ezagutarazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirila.

# Índice

I. Impulso, Coordinación y Asesoramiento en la Ejecución del "*III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Enfoque de Género en las Políticas Públicas (III P.A.P.M.E.-E.G.P.P.)*" ..... 10

Consejo de Dirección ..... 10

Informes al Parlamento ..... 20

Administración General ..... 20

Ámbito Territorial y Local ..... 40

El Marco Europeo ..... 44

II. Fomento del asociacionismo de mujeres ..... 68

III. Las organizaciones sociales y empresariales ..... 78

Igualdad de oportunidades en las empresas y organizaciones ..... 78

Género y Medios de Comunicación ..... 80

Asesoramiento a programas y actividades externas ..... 82

IV. Formación ..... 86

Interna ..... 86

Externa ..... 88

V. Sensibilización ..... 94

Foro para la Igualdad: NARO 2005 ..... 96

Jornadas ..... 96

Conferencias impartidas por Emakunde ..... 100

Campañas de Comunicación ..... 102

Revista Emakunde ..... 106

Calendario Emakunde ..... 110

Premios Emakunde ..... 110

Presencia en los Medios de Comunicación ..... 114

VI. Asesoramiento jurídico e información ..... 116

A la Administración ..... 118

A la Población ..... 126

Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi ..... 128

VII. Estudios, publicaciones, centro de documentación ..... 132

Estudios ..... 132

Publicaciones ..... 134

Centro de Documentación ..... 136

VIII. Relaciones con el exterior. Estado e internacional ..... 142

Con el Estado ..... 142

Marco internacional y cooperación al desarrollo ..... 144

# Aurkibidea


I. *"EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO III. PLANA. GENERO IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN (III PAPME-EGPP)"* **Planaren Aplikazioa Sustatu eta Koordinatzea; eta Horri Buruz Aholku Ematea.** . . 11

Zuzendaritza Kontseilua . . . 11

Legebiltzarrari aurkeztutako txostenak . . . 21

Administrazio Nagusia . . . 21

Lurraldeko eta Tokiko esparrua . . . 41

Europar esparrua . . . 45

II. EMAKUMEEN ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA . . . 69

III. GIZARTE ETA ENPRESA ERAKUNDEAK . . . 79

Aukera-berdintasuna enpresa eta erakundeetan . . . 79

Generoa eta Komunikabideak . . . 81

Kanpo Programa eta Jardueretarako Aholkularitza . . . 83

IV. PRESTAKUNTZA . . . 87

Barne-prestakuntza . . . 87

Kanpo-prestakuntza . . . 89

V. SENTSIBILIZAZIOA . . . 95

Berdintasunerako Gunea: 2005 NARO . . . 97

Jardunaldiak . . . 97

Emakundek emandako hitzaldiak . . . 101

Komunikazio kanpainak . . . 103

Emakunde aldizkaria . . . 107

Emakunde egutegia . . . 111

Emakunde Sariak . . . 111

Esku-hartzeak Hedabideetan . . . 115

VI. AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA INFORMAZIOA . . . 117

Administrazioari . . . 119

Herritarrei . . . 127

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea . . . 129

VII. IKERKETAK, ARGITALPENAK, DOKUMENTAZIO ZENTROA . . . 133

Ikerketak . . . 133

Argitalpenak . . . 135

Dokumentazio Zentroa . . . 137

VIII. KANPO HARREMANAK; ESTATUKOAK ETA NAZIOARTEKOAK . . . 143

Estatukoak . . . 143

Nazioarteko esparrua eta garapenerako lankidetza . . . 145

# I. Impulso, Coordinación y Asesoramiento en la Ejecución del *"III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Enfoque de Género en las Políticas Públicas (III P.A.P.M.E.-E.G.P.P.)"*

## Consejo de Dirección

El Consejo de Dirección de Emakunde, presidido por el Lehendakari, celebró el 11 de abril su primera reunión del año 2005. En la misma, tras la aprobación del acta de la reunión anterior, se trataron los siguientes puntos:

– La *Memoria de Emakunde* correspondiente al ejercicio 2004.

– El *Plan de Actuación* del Instituto para el año 2005.

– La *Resolución* por la que se regula la concesión de subvenciones a asociaciones de mujeres y federaciones para el año 2005.

– La *Resolución* por la que se regula la concesión de subvenciones a Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2005.

Gráfico 1. **Composición del Consejo de Dirección de Emakunde.**




*Emakundeko egitura*
Estructura de Emakunde

*Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikitako erakunde autonomoa da Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea.*

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, es un Organismo Autónomo adscrito a la Presidencia del Gobierno Vasco.



El Consejo de Dirección es el órgano de tutela y control de Emakunde.

1. grafikoa. **Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa.**

1. *Lehendakaria*
   Lehendakari
2. *Emakundeko Zuzendaria*
   Directora de Emakunde
3. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Secretaria General de Emakunde
4. *Eusko Jaurlaritzako Sailak*
   Departamentos del Gobierno Vasco
5. *Foru Aldundiak*
   Diputaciones Forales
6. *Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordea*
   Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco
7. *Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta*
   Por nombramiento directo del Parlamento Vasco
8. *Udalak*
   Municipios




Zuzendaritza Kontseilua da Emakunderen tutoretzako eta kontroleko organoa.

# I. *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana. Genero Ikuspegia Politika Publikoetan (III PAPME-EGPP)"* Planaren Aplikazioa Sustatu eta Koordinatzea; eta Horri Buruz Aholku Ematea.

## Zuzendaritza Kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak, Lehendakaria buru duenak, apirilaren 11n egin zuen 2005. urteko lehenengo bilera. Bertan, aurreko bileraren akta onartu ondoren, honako gaiak jorratu ziren:

– 2004ko ekitaldiari dagokion Emakunderen *Txostena*.

– Erakundearen 2005erako *Jarduera Plana*.

– Emakumeen elkarteentzako eta federazioentzako 2005eko diru-laguntzak erregulatzen dituen *Ebazpena*;

– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalentzako 2005eko diru-laguntzak erregulatzen dituen *Ebazpena*.

– La *Resolución* por la que se regula la concesión de subvenciones a la publicación y realización de proyectos de investigación y acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2005.

– La *Resolución* por la que convocan los *Premios Emakunde 2005.*

– La *Resolución* por la que se regula la concesión de subvenciones a empresas y entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico de la igualdad de mujeres y hombres y un plan de igualdad.

Al finalizar la reunión, Txaro Arteaga se despidió de las y los miembros del Consejo de Dirección, agradeciendo el trabajo de quienes han participado en el mismo durante los diecisiete años que ha permanecido al frente de la dirección de Emakunde.

El 21 de diciembre se celebró la primera sesión del nuevo Consejo de Dirección constituido tras el inicio de la *VIII Legislatura*. Se inició la reunión con la elección de las y los miembros de la Comisión Permanente.

Se procedió, a continuación, a la aprobación del *Anteproyecto de Presupuesto de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer* para el año 2006. Se informó, asimismo, sobre los *Premios Emakunde. 2005*, presentándose, a continuación, los informes anuales *"Cifras sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. 2004"* y la *"Memoria de Actuación de los Poderes Públicos en 2004 en Ejecución del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*. Se presentó también la *"Evaluación Global de la Ejecución y Grado de Cumplimiento del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*, correspondiente al anterior periodo legislativo.




La directora de Emakunde expuso someramente los principales resultados de los citados *Informes*. En cuanto a la *"Memoria de Actuación de los Poderes Públicos en 2004 en Ejecución del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*, cabe señalar que el número total de actividades realizadas por los Poderes Públi-

— 2005erako emakume eta gizonen arteko berdintasuneko ikerketa-proiektu edo ekintza pilotuak egiteko edo argitaratzeko diru-laguntzak erregulatzen dituen *Ebazpena*.

— *2005erako Emakunde Sarietarako* deialdia egiteko *Ebazpena*.

— Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautzen dituen *Ebazpena*, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diagnostikoa egiteko eta berdintasun-plan bat egiteko aholkularitza homologatua kontratatzeko




Bilera bukatzean, Txaro Arteagak agur esan zien Zuzendaritza Kontseiluko kideei eta eskerrak eman zizkien bera Emakundeko zuzendari izan den hamazazpi urteetan bertan parte hartu duten guztiei, egindako lanagatik.

Abenduaren 21ean Zuzendaritza Kontseilu berriaren lehenengo bilera egin zen. Kontseilua *VIIII. Legealdia* hasi eta gero eratu zen. Bileraren hasieran, Batzorde Iraunkorreko kideak hautatu zituzten.

Jarraian, *Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen 2006rako Aurrekontuaren Aurreproiektua* onartu zen. Era berean, *2005eko Emakunde Sarien* berri eman zen eta, ondoren, urteko txostenak aurkeztu ziren: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak. 2004"* eta *"Botere Publikoen 2004ko Jarduera-txostena, III. PAPME-EGPP Plana Aplikatzeari buruzkoa"*. Halaber, aurreko legealdiari zegokion *"III. PAPME-EGPP Planaren Egikaritze eta Betetze Mailaren Ebaluazio Orokorra"* ere aurkeztu zen.




Emakundeko zuzendariak txosten horien emaitza nagusiak azaldu zituen Labur-labur. *"Botere Publikoen 2004ko Jarduera-txostena, III. PAPME-EGPP Plana Aplikatzeari buruzkoari"* dagokionez, azpimarratzekoa da Botere Publikoek 2004an zehar burututako jarduera guztien kopuruak na-

cos en el 2004 ha experimentado un aumento importante con respecto al año anterior, lo que ha tenido, también, un reflejo positivo en el nivel de ejecución del *Plan* alcanzando un aumento del 7%. Sin embargo, no se han observado cambios cualitativos relevantes en las políticas de igualdad impulsadas.




Por lo que respecta al informe *"Cifras sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. 2004"*, elaborado a partir de diversas fuentes secundarias disponibles, recoge una serie de indicadores relativos a las distintas áreas que configuran la realidad social, siendo éstas las siguientes: población, empleo, educación, uso del tiempo, deporte, salud, participación política y asociacionismo, violencia contra las mujeres y pobreza. Una lectura global de los datos muestra la persistencia de las desigualdades en todos los ámbitos de nuestra sociedad, desigualdades que se traducen en la discriminación de las mujeres y en su extremo más visible, en la pobreza y en la violencia que sufren. El salario medio percibido por los hombres de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en todas las edades, es mayor que el de las mujeres y las diferencias van desde los 3.500 euros anuales en el colectivo de 20 a 29 años, a las más de 10.000 en el de 50 a 59 años. La mayor diferencia se da en el sector servicios, en el que se encuentran más del 80% de las mujeres ocupadas. Otro dato a destacar es que un mayor nivel de estudios no corrige estas diferencias que se elevan a más de 14.000 euros anuales entre las mujeres y los hombres con estudios universitarios en el sector industrial.




Durante 2004, las denuncias por delitos y faltas por episodios de violencia y malos tratos contra las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi constituyeron un total de 2.704 casos y afectaron a 2.408 mujeres. Cinco mujeres murieron en nuestra Comunidad como consecuencia de violencia o maltrato, 13 resultaron heridas graves y 983 heridas leves.




La *"Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales. 2004"* elaborada por el Gobierno Vasco pone de manifiesto que

2. Grafikoa. III PAPME-EGPPren betetze-mailaren gehikuntza. 2004-2005.

Gráfico 2. Incremento en el nivel de ejecución del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P. 2004-2005.

3. Grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriak eta tratu txarrek eragindako salaketen eta biktimen kopuruaren ebaluzioa. (2003-2004)

Gráfico 3. Evolución en el número de denuncias y de víctimas por episodios de violencia y malos tratos contra las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. (2003-2004)

4. Grafikoa. Gizonek urtean jasotzen duten batez besteko soldataren eta emakumeenaren arteko aldea, adin-tartearen arabera.

Gráfico 4. Diferencia del salario medio anual percibido por los hombres sobre el de las mujeres, según tramos de edad.

barmen egin zuela gora aurreko urtekoarekin alderatuta. Horrek eragin positiboa izan du plana egikaritze-mailan, %7 gehitu baita. Hala ere, ez da aldaketa kualitatibo nabaririk ikusi bultzatu diren berdintasunerako politiken aldetik.

*"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak. 2004"* txostena, berriz, eskura dauden bigarren mailako hainbat iturritan oinarrituta egin da, eta gizartearen errealitatea osatzen duten adierazle batzuk jaso ditu, hala nola: biztanleria, enplegua, hezkuntza, denboraren erabilpena, kirola, osasuna, partaidetza politikoa eta asoziazionismoa, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia. Datu horien gaineko irakurketa orokorrak agerian uzten du desberdintasunek gure gizarteko alde guztietan irauten dutela. Desberdintasun horien ondorioa emakumeen diskriminazioa da eta, muturrik agerikoenean, emakumeek jasaten duten pobrezia eta indarkeria. Euskal Autonomia Erkidegoko gizonek irabazten duten batez besteko soldata emakumeena baino handiagoa da, adin guztietan. Hala, bien arteko aldea 20 eta 29 urte bitartekoen taldean antzematen den urteko 3.500 euroetatik 50 eta 59 urte bitartekoen artean urtean antzematen den 10.000 eurotik gora doa. Desberdintasunik handienak zerbitzu-alorrean izaten dira, horretan jarduten baitute enplegatutako %80 emakumek. Azpimarratu beharreko beste datu baten arabera, ikasketa-maila altuagoa izateak ez ditu desberdintasunak zuzentzen. Hala, Unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen eta gizonen arteko soldaten aldea 14.000 eurotik gorakoa da industria-alorrean.

2004an zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen aurkako indarkeria eta tratu txarrak direla-eta aurkeztutako salaketak 2.704 izan ziren eta guztira 2.408 emakume izan ziren eragindakoak. Bost emakume hil ziren gure Erkidegoan indarkeriaren edo tratu txarren ondorioz, 13 larri zauritu ziren eta 983 arin zauritu ziren

Eusko Jaurlaritzak landutako *"2004ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen inguruko Inkestak"* agerian utzi du po-

los hogares que sufren un mayor riesgo de pobreza o ausencia de bienestar son fundamentalmente aquellos encabezados por mujeres.

El informe de *"Evaluación Global de la Ejecución y Grado de Cumplimiento del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."* ofrece, además de los datos globales del nivel de ejecución y de las tendencias en la acción política observadas en el periodo 2000-2004, un análisis detallado del nivel de ejecución alcanzado en cada una de las subáreas que complementan el plan. Este análisis ha tomado como referencia el nivel de ejecución global, el 74% de las acciones abordadas con una media de 11,5 actividades por acción, y muestra que, junto con un nivel de ejecución elevado, se producen importantes desequilibrios en la intensidad con la que las administraciones públicas abordan las acciones planteadas en el plan. El análisis por subáreas aporta, también, información sobre los colectivos destinatarios, la categoría o tipo de intervención utilizado en cada caso, las administraciones que con mayor frecuencia han actuado en cada ámbito, el coste económico, etc.



Aporta, asimismo, a partir de una lectura más transversal de la actuación global de las administraciones, un análisis de las actividades directamente orientadas al cumplimiento de los dos grandes objetivos generales que guían *el III P.A.P.M.E.-E.G.P.P.*, que son la *Capacitación de la Administración Pública* para la integración de la perspectiva de género en su actuación ordinaria y para el desarrollo de políticas de acción positiva, por un lado, y el *Empoderamiento de las Mujeres*, su capacidad de organización e intervención social política, por otro.

En relación con el primero de estos objetivos, se pueden destacar, entre otras actuaciones, las más de 370 investigaciones o evaluaciones, más de 1.800 actividades de sensibilización y formación dirigidas al personal de las administraciones y los más de 30 *Planes Municipales de Igualdad aprobados en el periodo de vigencia del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P.*



brezia edo ongizaterik eza nozitzeko arriskurik handiena duten familiak emakumeak buru dituztenak direla.

*"III. PAPME-EGPP Planaren Egikaritze eta Betetze Mailaren Ebaluazio Orokorraren"* txostenak, 2000-2004 denboraldian antzemandako egikaritze-mailari eta ekintza politikoaren joerei buruzko datu orokorrez gain, plana osatzen duen azpiatal bakoitzarentzat lortutako egikaritze-mailaren gaineko analisi zehatza eskaintzen du. Analisia egiteko oinarria egikaritze-maila orokorra izan da, hots, ekintza guztietatik heldu zaien %74, ekintza bakoitzeko batez beste 11,5 jarduera burutu direla. Analisiak agerian utzi duenez, egikaritze-maila altua bada ere, desoreka handiak daude administrazio publikoen artean planean jasotako ekintzei heltzeko intentsitatean. Azpiatalen araberako analisiak, berriz, helburu diren kolektiboei buruzko informazioa ere ematen du. Era berean, kasu bakoitzean erabilitako esku-hartzearen kategoria edo mota, esparru bakoitzean maizenik esku hartu duten administrazioa, kostu ekonomikoa eta abar ere aipatzen dira.

Horrez gain, administrazioen jarduera orokorraren zeharkako irakurketan oinarrituta, *III PAPME-EGPP* gidatzen duten bi helburu nagusiak betetzera zuzenduta dauden jardueren gaineko analisia ematen du. Bi helburu horiek honako hauek dira: batetik, *Administrazio Publikoa* bere ohiko jardueran genero-ikuspegia txertatzen eta ekintza positiboko politikak garatzen trebatzea, eta bestetik, *Emakumeen Boteretzea*, gizartean antolatzeko eta esku hartzeko gaitasuna.



Lehenengo helburuari dagokionez, beste jarduera batzuen artean, ondorengo hauek nabarmendu daitezke: 370 ikerketa edo ebaluazio baino gehiago egin dira, administrazioetako pertsonalari zuzendutako 1.800 sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza baino gehiago egin dira eta *Berdintasunerako* 30 *Udal-plan* baino gehiago onartu dira *III PAPME-EGPP* indarrean egon den bitartean.

Con respecto al segundo, podemos destacar las más de 400 concesiones de subvenciones y otros recursos de apoyo a las actividades realizadas por las Asociaciones de Mujeres, o las más de 500 mujeres formadas en gestión y organización de asociacionismo, entre otras muchas actividades.

Se presentó también ante el consejo el primer *"Borrador del IV Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi"* para la presente legislatura y se expuso el proceso seguido por Emakunde para su realización.

Ante la nueva situación generada con la probación de la *Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi*, Emakunde abrió un proceso de reflexión con el fin de valorar tanto la experiencia adquirida en el transcurso del desarrollo de los planes anteriores, sus ventajas y deficiencias, como la función que el *IV Plan* debe adquirir en el nuevo contexto que ofrece la aprobación de la citada *Ley*.

En los periodos anteriores, el *Plan* se constituía como el único marco de las políticas de igualdad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. La aprobación de la *Ley* modifica esta situación, y el *Plan* se percibe ahora como un elemento de apoyo y guía para el desarrollo de la misma, debiendo adquirir, por tanto, una mayor concreción como instrumento de planificación y gestión de las políticas de igualdad definidas en la propia *Ley*.

Emakunde creó un grupo asesor, constituido por personas expertas en políticas de igualdad y con experiencia en el desarrollo de las mismas desde los distintos niveles de la Administración implicados y en función de sus competencias. Paralelamente, se puso en marcha un trabajo de investigación cualitativa con el fin de recoger, a través de entrevistas y grupos de discusión, las valoraciones y propuestas que desde su conocimiento y experiencia pudieran aportar un amplio número de personas de nuestra comunidad. Este proceso, llevado a cabo entre los meses de mayo y septiem-

Bigarren helburuari gagozkiola, beste jarduera askoren artean, Emakume-elkarteek aurrera eraman dituzten jarduerak bultzatzeko 400 diru-laguntza baino gehiago eta bestelako baliabideak onartu direla azpimarratu dezakegu, baita asoziazionismoa kudeatzeko eta antolatzeko 500 emakume baino gehiago trebatu direla ere.

Bestalde, legealdi honetarako *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren lehenengo Zirriborroa"* aurkeztu zen Kontseiluaren aurrean, eta plana gauzatzeko Emakundek jarraitu duen prozedura azaldu zen.

*Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 otsailaren 18ko Legea* onartzeak eragindako egoeraren ondorioz, Emakundek gogoeta egiteko prozesuari ekin zion. Prozesuaren helburuak izan ziren, alde batetik, aurreko planen garapenari esker hartutako esperientzia eta haien onurak eta akatsak baloratzea, eta bestetik, *Legeak* ekarritako testuinguru berrian *IV. Planak* bete behar duen eginkizunaz hausnartzea.

Aurreko aldietan, Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasunerako politiken esparru bakarra izan zen *Plana. Legea* onartutakoan, berriz, egoera aldatu egin zen eta, oraingoan, *Planaren* eginkizuna *Legea* garatzeko lagungarri eta gida izatea da. Hortaz, *Planak* zehaztapen handiagoa behar du *Legean* ezarritako berdintasunerako politikak planifikatu eta kudeatzeko tresna izateko.

Emakundek aholkulari-talde bat eratu zuen, berdintasunerako politiketan adituek osatua. Adituek esperientzia zuten politika horiek garatzen, Administrazioan eragindako maila guztietan eta haien eskumenen arabera. Aldi berean, ikerlan kualitatibo bat jarri zen abian, gure Erkidegoko hainbat pertsonak egin zitzaketen balorazioak eta proposamenak jasotzeko, nork bere ezagutzan eta esperientzian oinarrituta eta elkarrizketen eta eztabaida-taldeen bidez. Prozesua maiatzetik irailera bitartean luzatu zen, eta bukatu zenean, *IV. Planaren* egitura berria proposatu eta idaz-

bre, concluyó con la propuesta de una nueva estructura para el *IV Plan* así como la definición de las características y objetivos que deberían presidir su redacción.

Se inició, posteriormente, una nueva fase de consultas a personas expertas en las distintas áreas para la conformación del nuevo *Plan*. Tras este segundo proceso, se elaboró el *Primer Borrador del IV Plan* que se presentó en el Consejo.

Emakunde comunicó al Consejo que el *Borrador* había sido presentado a la Comisión Interdepartamental para su valoración en los distintos departamentos del Gobierno Vasco y a la Comisión Consultiva de las Asociaciones de Mujeres para su valoración social. Comunicó, asimismo, la previsión de una reunión conjunta de ambas partes para el intercambio de opiniones y valoraciones sobre el *Borrador* presentado. Emakunde planteó extender esta consulta a las Administraciones Forales y Locales a través de sus representantes en el propio Consejo, acordando un plazo de recepción de sus aportaciones.



Posteriormente, Emakunde informó de la elaboración de un *Segundo Borrador* para ser de nuevo presentado ante el Consejo y de la intención de elaborar el *Tercer Borrador* para su exposición a consulta pública, una vez recogidas las propuestas derivadas del Consejo.

## Informes al Parlamento

Emakunde ha presentado al Parlamento Vasco el informe *"Cifras sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. 2004"*; la "*Memoria de Actuación de los Poderes Públicos en 2004 en Ejecución del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."* y la *"Evaluación Global de la Ejecución y Grado de Cumplimiento del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*, de los que se da cuenta en el capítulo anterior.

**Administración General**

## Comisión Interdepartamental

El 2 de febrero de 2005, se celebró la primera reunión de la Comisión Interdepartamental para la *Coordinación de la Ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. En la misma, los De-

terakoan aintzat hartu beharreko ezaugarriak eta helburuak finkatu ziren.

Ondoren, *Plan* berria eratzeko hainbat alorretako adituei kontsultak egiteko beste fase bat ireki zen. Bigarren prozesu horren ostean, Kontseiluan aurkeztutako *IV. Planaren Lehenengo Zirriborroa* landu zen.

Emakundek Kontseiluan adierazi zuenez, *Zirriborroa* Sailarteko Batzordean aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzako Sailek aztertzeko, bai eta Emakumeen Elkarteen Aholku Batzordean ere, balioespen soziala egiteko. Era berean, bi aldeen arteko bilera egitea aurreikusita zegoela jakinarazi zuen. Bilera horren helburua aurkeztutako *Zirriborroaren* inguruko iritziak eta balorazioak elkarri trukatzea zen. Emakundek kontsulta hori Foru eta Tokiko Administrazioetara zabaldu eta, horretarako, administrazio horiek Kontseiluan dituzten ordezkariak erabiltzea proposatu zuen. Haien ekarpenak jasotzeko epe bat finkatzea erabaki zen.

Ondoren, Emakundek aditzera eman zuen *Bigarren Zirriborroa* landua zuela, Kontseiluan berriz ere aurkezteko, eta *Hirugarrena* lantzekotan zebilela, kontsulta publikoan erakusteko, behin Kontseiluak egindako proposamenak jaso eta gero.

### Legebiltzarrari aurkeztutako txostenak

Emakundek Eusko Legebiltzarrari *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak. 2004"* izeneko txostena, *"Botere Publikoen 2004ko Jarduera-txostena, III. PAPME-EGPP Plana Aplikatzeari buruzkoa"* eta *"III. PAPME-EGPP Planaren Egikaritze eta Betetze Mailaren Ebaluazio Orokorra"* aurkeztu dizkio. Aurreko kapituluan eman dugu horien berri.

**Administrazio Nagusia**

### Sailarteko Batzordea

2005eko otsailaren 2an egin zen *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren Aplikazioa Koordinatzeko* Sailarteko Batzordearen lehenengo bilera. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Sailek *"2004ko*

partamentos del Gobierno Vasco presentaron tanto el *"Informe de Seguimiento 2004"*, como las líneas prioritarias de las actuaciones planteadas para el 2005.

El 13 de diciembre del 2005, la Comisión Interdepartamental llevó a cabo una segunda reunión en la que, tras quedar formalmente constituido el consejo, se expuso el proceso seguido para la determinación de la nueva estructura propuesta para el *"IV Plan para la Igualdad de las Mujeres y los Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi"*. Se mencionaron las conclusiones del diagnóstico realizado tomando en cuenta las evaluaciones de los planes anteriores, las aportaciones del grupo de asesoras constituido en Emakunde, las oportunidades y exigencias de la *Ley 4/2005*, así como las aportaciones de numerosas personas con experiencia y conocimiento en planificación tanto en el ámbito de la igualdad como en otros ámbitos.

Se expusieron, también, las líneas básicas de la nueva estructura planteada y las áreas de intervención que conformarán el *Plan*, determinadas en función del contenido de la *Ley 4/2005.* Cada área estará constituida por diversos programas con sus objetivos concretos así como la indicación de herramientas y acciones que contribuirán al logro de los mismos y que, en su conjunto, constituyen los elementos *"facilitadores"* de la planificación para el conjunto de la Administración.

En la sesión se expuso, asimismo, la metodología establecida y los instrumentos creados a fin de facilitar la participación y las aportaciones de los Departamentos del Gobierno Vasco al *Borrador* presentado, estableciéndose así el primer proceso de consultas y aportaciones por parte de las Administraciones. El proceso incluirá, tal como se expone y acuerda en la misma sesión, una reunión conjunta de representantes de este Consejo con representantes de la Comisión Consultiva de las Asociaciones de Mujeres.

## Grupo Técnico de la Comisión Inter-departamental

Emakunde ha asesorado y realizado propuestas al Grupo Técnico de la Comisión Interdepartamental (GTCI) así como a los grupos de trabajo o comisiones de apoyo al mismo existentes en los distintos Departamentos del Gobierno Vasco a fin de contribuir a la elaboración del *Documento-*

Gráfico 5. **Composición de la Comisión Interdepartamental.**



5. grafikoa. **Sail arteko Batzordearen osaketa.**

1. *Lehendakaria*
   Lehendakari
2. *Emakundeko Zuzendaria*
   Directora de Emakunde
3. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Secretaria General de Emakunde
4. *Eusko Jaurlaritzako Sailak*
   Departamentos del Gobierno Vasco

*Sail arteko Batzordea da Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako sailen nahiz sail horiei atxikitako erakunde autonomoen arteko koordinazio eta komunikazio organoa.*

La Comisión Interdepartamental es el órgano de coordinación e intercomunicación entre el Instituto Vasco de la Mujer/Emakunde y los distintos Departamentos del Gobierno Vasco y Organismos Autónomos a ellos adscritos.

*Segimendu Txostena"* eta 2005erako planteatutako lehentasunezko jardueren lerro nagusiak aurkeztu zituzten.

2005eko abenduaren 13an, Sailarteko Batzordeak bigarren bilera egin zuen. Bertan, Kontseilua formalki eratu eta gero, *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren* egitura berria zehazteko jarraitutako prozesuaren berri eman zen. Honako hauek aipatu ziren: aurreko planen ebaluazioak kontuan hertutik egindako diagnostikoaren konklusioak, Emakundek osatutako aholkulari-taldearen ekarpenak, *4/2005 Legearen* aukerak eta betekizunak eta planifikazioan esperientzia eta ezagutza duten hainbat pertsonaren ekarpenak.

Halaber, planteatutako egitura berriaren oinarrizko lerroak eta *Plana* osatuko zuten esku-hartzeko atalak azaldu ziren, *4/2005 Legearen* edukiaren arabera. Atal bakoitzak hainbat programa dauka, eta programa bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, baita helburu horiek lortzen lagunduko duten tresnak eta ekintzak ere. Tresna eta ekintza horiek planifikazioa *"erraztuko"* duten elementuak dira Administrazioarentzat.

Bileran azaldu ziren, orobat, Eusko Jaurlaritzako Sailek parte hartzeko eta aurkeztutako *Zirriborroari* ekarpenak egiteko ezarritako metodologia eta sortutako tresnak. Hala, administrazioek kontsultak eta ekarpenak egiteko lehenengo prozesua ezarri zen. Bileran erabaki zenez, prozesuan zehar bilkura bat egingo dute Kontseiluko ordezkariek eta emakumeen elkarteen Aholku Batzordeko ordezkariek.

## Sailarteko Batzordearen Talde Teknikoa

Emakundek Sailarteko Batzordearen Talde Teknikoari (SBTT) aholkuak eta proposamenak eman dizkio, bai eta horri laguntzen dioten Sail desberdinetako lan-talde edo batzordeei ere, 2005erako *Jardueren Programa-agiria* egiten laguntzeko. 2004. urteari dagokion *Urteko Segimenduaren*

*Programa de Actuación* para el año 2005. Ha elaborado la *Memoria Anual de Seguimiento* correspondiente al año 2004, a partir de la información relativa a las actuaciones llevadas a cabo, proporcionada por el GTCI.

Como continuación al trabajo realizado con el GTCI durante el año 2004 sobre el *Borrador* de la herramienta de *Evaluación de Impacto de Género*, en el año 2005 se ha realizado un trabajo interno en el Instituto para darle la forma definitiva y avanzar en su regulación. Este *Borrador* fue presentado al GTCI para explicar las modificaciones realizadas y recoger sus sugerencias.

### "Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas del Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"




El 18 de octubre de 2001 se firmó el *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*, a través del cual entraron en vigor los compromisos adquiridos en el *Protocolo Interinstitucional* suscrito el 25 de noviembre de 2000. El *Acuerdo* tiene por objeto mejorar la coordinación entre las Instituciones implicadas en la atención a las citadas víctimas, mediante el establecimiento de procedimientos de actuación homogéneos para toda la Comunidad Autónoma Vasca, y fue rubricado por las máximas autoridades: el Lehendakari, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi; el Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en representación del Consejo General del Poder Judicial; la Fiscal-Jefa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en representación de la Fiscalía; los tres Diputados Generales, en representación de las Diputaciones Forales; el Presidente de Eudel, en representación de los Municipios Vascos; y los Presidentes del Consejo Vasco de la Abogacía y del Consejo Médico Vasco, en representación de sus colegiados y colegiadas.

### Comisión de Seguimiento del Acuerdo Interinstitucional

Con el fin de garantizar la aplicación efectiva de las pautas y criterios que se recogen en el Acuerdo y de realizar un seguimiento de los compromisos adquiridos por las Instituciones firmantes, se crea una *Comisión de Seguimiento* presidida por la directora de Emakunde y compuesta por representantes con rango de viceconsejero, viceconsejera o similar de todas las Instituciones implicadas.

*Memoria* egin du, SBTTak egindako jardueren inguruan emandako informazioa oinarri harturik.

SBTTak 2004. urtean zehar *Genero Inpaktuaren Ebaluaziorako* tresnaren *Zirriborroaren* gainean egindako lanari jarraituz, 2005. urtean behin betiko itxura eman eta haren araudia garatzeko barne-lana burutu da Erakundean. *Zirriborroa* SBTTri aurkeztu zitzaion, egindako aldaketak azaldu eta haren iradokizunak jasotzeko




## "Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde Arteko Akordioa"

2001eko urriaren 18an sinatu zen *"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde Arteko Akordioa"*, eta horren bitartez 2000ko azaroaren 25ean izenpeturiko Erakunde arteko Akordioan harturiko konpromisoak indarrean sartu ziren. Akordioaren helburua da aipaturiko biktimen arretan inplikaturiko Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, Erkidego guztiarentzat jarduera-prozedura heterogeneoak ezarriz, eta aginpide gorenek sinatu zuten: Lehendakariak, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaritzan; Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lehendakariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkaritzan; Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskalburuak, Fiskaltzaren ordezkaritzan; hiru Diputatu Nagusiek, Foru Aldundien izenean; Eudeleko Lehendakariak, Euskal Udalerrien izenean eta Legelarien Euskal Kontseiluko eta Medikuen Euskal Kontseiluko Lehendakariek beren elkargokideen izenean.

## Erakunde arteko Akordioaren Segimendu-batzordea

Hitzarmenean biltzen diren jarraibideak eta irizpideak modu eraginkorrean aplikatzea bermatzeko eta erakunde sinatzaileek harturiko konpromisoen segimendua egiteko helburuarekin, *Segimendu Batzorde* bat sortu da, Emakundeko Lehendakaria buru duena eta erakunde inplikatu guztietako sailburu, sailburuorde edo antzeko postuko ordezkariek osatzen dutena.

Las actuaciones más relevantes llevadas a cabo por la *Comisión de Seguimiento* durante 2005 han sido las siguientes:

– Aprobación del documento *"Medidas para la Difusión y Puesta en Práctica del Acuerdo Interinstitucional"*, en el que se recogen las actividades que en tal sentido las Instituciones participantes se han comprometido a realizar en 2005.

– Aprobación del *"Informe de Evaluación y Seguimiento"*, en el que, de un lado, se señalan las acciones desarrolladas en 2004 por las Instituciones firmantes a efectos de garantizar la efectiva aplicación de las medidas y pautas contempladas en el *Acuerdo Interinstitucional* y, de otro lado, se recoge de forma literal la valoración que las Instituciones han realizado con relación al grado de cumplimiento del acuerdo en sus correspondientes ámbitos de actuación.

– Realización de una *Campaña Interinstitucional de Comunicación*, realizada con ocasión de la conmemoración del *"25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia Contra las Mujeres"*.

– Suscripción en cada uno de los Territorios Históricos de un *"Protocolo de Coordinación para la Eficacia de la Ley de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género y de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica"*, como instrumentos fundamentales de coordinación y colaboración entre los diversos agentes implicados en la atención a las víctimas de estos delitos.

– Aprobación del documento que analiza el informe *"Respuesta Institucional a la Violencia contra las Mujeres en la C.A.P.V."* del Ararteko, en el que se recoge la valoración que las Instituciones presentes en el acuerdo hacen de las recomendaciones del Ararteko, así como las medidas que han adoptado o van a adoptar con relación a aquéllas.

– Aprobación de la *"Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual contra las Mujeres para*

Gráfico 6. **Composición de la Comisión de Seguimiento del *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas del Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*.**




La Comisión de Seguimiento está presidida por la Directora de Emakunde y compuesta por diferentes instituciones firmantes del *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas del Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales".*

6 grafikoa. **"Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak Jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobea Emateko Erakunde arteko Hitzarmena"-ren Segimendu Batzordearen osaketa.**

1. *Emakundeko Zuzendaria*
   Directora de Emakunde
2. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Secretaria General de Emakunde
3. *Aginte Judizialaren Kontseilu Gorena*
   Consejo General del Poder Judicial
4. *Fiskaltza*
   Fiscalía
5. *Udalak. Eudel*
   Ayuntamientos. Eudel
6. *Abokatuen Euskal Kontseillua*
   Consejo Vasco de la Abogacía
7. *Euskadiko Sendagile Elkarte Nagusia*
   Consejo Médico Vasco
8. *Lehendakaritza*
   Lehendakaritza
9. *Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila*
   Dpto. de Interior del Gobierno Vasco
10. *Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila*
    Dpto. de Sanidad del Gobierno Vasco
11. *Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila*
    Dpto. de Justicia, Trabajo y S. Soc. del Gobierno Vasco
12. *Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila*
    Dpto. de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco
13. *Arabako Foru Aldundia*
    Diputación Foral de Araba/Álava
14. *Bizkaiko Foru Aldundia*
    Diputación Foral de Bizkaia
15. *Gipuzkoako Foru Aldundia*
    Diputación Foral de Gipuzkoa

Emakundeko zuzendaria da Segimendu Batzordeko buru, eta osatzen dutenak, berriz, hauek dira: *"Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak Jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobea Emateko Erakunde arteko Hitzarmena"* izenpetu duten erakundeak.

*Segimendu Batzordeak* 2005ean zehar aurrera eramandako jarduerarik garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

— *"Erakunde arteko akordioa hedatzeko eta aplikatzeko neurriak"* delako agiria onartzea. Parte hartzen duten Erakundeek 2005ean egiteko konpromisoa hartu duten jarduerak biltzen ditu agiriak.

— *"Ebaluazio eta Segimendu Txostena"* onartzea. Txostenak, alde batetik, 2004an Erakunde sinatzaileek Akordioan bilduriko neurri eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko garaturiko ekintzak adierazten ditu eta, bestetik, *Akordioak* izan duen betetzemailaren inguruan Erakundeek, bakoitzak bere jarduera-esparruan, egindako balorazioa literalki biltzen du.

— *Erakunde arteko Komunikazio Kanpaina* bat egitea, *"Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna"* ospatzeko.

— Herrialde Historiko bakoitzean *"Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Legearen Eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa"* eta *"Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua"* sinatzea, delitu horien biktimei laguntzeko eginkizuna duten eragile guztien koordinazioa eta lankidetzarako oinarrizko tresnak baitira.

*Emandakoak* Concedidas
*Ukatuak* Denegadas
*Uko egiteak* Renuncias

9. grafikoa. **EAEko emakumeen elkarteei emandako diru laguntzen zenbatekoaren eboluzioa 2000-2005.**




*tu* horren bitartez, oinarrizko tresna bat eskaini nahi da, koordinazioa errazteko eta garatu beharreko ekintzak indartuko dituzten sareen edo bestelako egituren sorrera sustatzeko.

Emakume-elkarteei aholku eman zaie, *Proiektuetan* genero-ikuspegia txertatzeko helburua duten *Biltzarrak, Hitzaldiak, Mintegiak eta Jarduerak* antolatzeko.

Aldi berean, Emakundek informazioa jarri du Emakume-elkarteen eskura, Euskal Administrazio Publikoak ondorengo esparru hauetan egindako *Diru-laguntza Deialdien* inguruan:

— Kultura-jarduerak.

— Natura-ingurunearekin zerikusia duten ikerlanak, lanak edo jarduerak burutzea.

— Justiziarekin zerikusia duten biltzarrak, bilera zientifikoak, ikastaroak edo mintegiak egitea (lanaren edo ekonomiaren alorrekoak).

— Jaialdiak, zikloak eta lehiaketak antolatzea; antzerkiaren, dantzaren, musikaren eta zinemaren alor artistikoetan.

— Giza eskubideen defentsa edo babesa hedatzeko edo sustatzeko jarduerak.

Estatuak *Diruz Lagundutako Programei* buruz ere informazioa eman da, hala nola *Lankidetzako eta Gizarteko Boluntariotzako Programak* egiteko oinarri arautzaileei eta laguntzen eta diru-laguntzen deialdiari buruz, *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren* zerga-esleipenaren kontura, edo *Europar Batasuneko Programei* buruz

Bestalde, Emakundek Emakume-elkarteak gonbidatu ditu, sistematikoki, *Prestakuntza-jardueretara, Jardunaldietara* eta *Mintegietara* eta informazioa zabaldu du, *Gainerako Jardueren* inguruan. Erakundeak zenbait Emakume-elkarte hartu ditu bere egoitzan, batetik, horien helburuak eta jar-

conocer sus objetivos y actividades y dar a conocer el trabajo que desarrolla Emakunde, los recursos que ofrece, etc.

Emakunde ha mantenido relación con diversas *Asociaciones de Personas con Discapacidades* de la Comunidad Autónoma de Euskadi y, en este contexto, ha contado con la colaboración de la Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de nuestra Comunidad con objeto de promover la igualdad efectiva y eliminar aquellos obstáculos que, derivados de su pertenencia al sexo femenino, puedan estar contribuyendo a generar situaciones de discriminación múltiple.

Asimismo, con igual objeto, se sigue colaborando con la Comisión de la Mujer de la Federación Vasca de Personas Sordas *"Eusko Gorrak"* y se han iniciado contactos con mujeres gitanas para apoyar proyectos que ayuden a sensibilizar y promover su participación asociativa.

Emakunde ha respondido igualmente a las demandas de información procedentes de Asociaciones de Mujeres de otras Comunidades Autónomas en relación con las actividades que se realizan en nuestra Comunidad. Asimismo, ha posibilitado la realización de actividades de intercambio de informaciones, experiencias y recursos, y coordinación entre las Asociaciones de Mujeres de nuestra Comunidad con otras del Estado.

Gráfico 10. **Porcentajes de actividades subvencionadas por Emakunde a las asociaciones de mujeres en la C.A. de Euskadi, por el tipo de actividad y por año.**




**Tipos de actividades:**

1. Derechos de las mujeres, derechos humanos
2. Autoestima, empoderamiento y participación sociopolítica
3. Una cultura para el desarrollo de la igualdad de oportunidades:
   - Actividad creativa y de ocio
   - Deporte
   - Medios de comunicación
4. La coeducación
5. Igualdad de oportunidades en el empleo:
   - Medio rural
   - Adecuación de los servicios para el empleo
   - Autoempleo
6. Salud integral de las mujeres: gestión de la propia salud y adecuación del sistema sanitario
7. Conciliación de responsabilidades personales, familiares y profesionales
8. Una organización territorial y urbanística favorable a la igualdad de oportunidades y al desarrollo sostenible:
   - Urbanismo y medio ambiente
9. Integración social de las mujeres en riesgo o situación de exclusión social:
   - Mujeres solas y/o con cargas familiares
   - Violencia contra las mujeres
   - Mujeres en otros colectivos en riesgo o situación de exclusión social: prostitución, mujeres con discapacidad, presas, mujeres inmigrantes, con problemas de adicción, lesbianas, etc.
10. Cooperación y políticas de género

10. grafikoa. **Emakundek EAEko emakume-elkarteei diruz lagundutako jardueren ehunekoa, jarduera-motako eta urteko.**




**Jarduera-motak:**

1. Emakumeen eskubideak, giza eskubideak
2. Autoestimua, boteretzea eta partaidetza soziopolitikoa
3. Aukera-berdintasuna garatzeko kultura:
   - Sorkuntzako eta aisialdiko jarduera
   - Kirola
   - Komunikabideak
4. Hezkidetza
5. Enpleguko aukera-berdintasuna:
   - Landa-ingurunea
   - Zerbitzuak enplegurako egokitzea
   - Autoenplegua
6. Emakumeen osasun integrala: osasuna kudeatzea eta osasun-sistema egokitzea
7. Norberaren, familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri egitea
8. Aukera-berdintasuna eta garapen iraunkorra laguntzen dituen lurralde- eta hiri-antolamendua:
   - Hirigintza eta ingurumena
9. Gizarte-baztekeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen gizarteratzea – Bakarrik dauden edo familia-kargak dituzten emakumeak:
   - Emakumeen aurkako indarkeria
   - Gizarte bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden beste kolaktiboetako emakumeak: prostituzioa, ezintasunak dituzten emakumeak, presoak, immigranteak, adikzio-arazoak dituztenak, lesbianak, etab.
10. Lankidetza eta genero-politikak

duerak ezagutzeko eta, bestetik, Emakundek garatzen duen lana, eskaintzen dituen baliabideak eta abar ezagutarazteko.

Emakunde harremanetan egon da *Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait Minusbaliatu-elkarterekin* eta Euskal Autonomia Erkidegoko Minusbaliatu Fisikoak Koordinatzeko Konfederaziori lagundu dio, benetako berdintasuna sustatzeko. Gainera, emakumezkoek berariazko zenbait oztopori aurre egin behar izaten diete, eta horiek bide eman dezakete era askotako diskriminazio-egoerak sortzeko. Horregatik, Emakundek laguntza eskaini nahi die elkarte horiei, oztopo horiek guztiak desagerrarazteko.

Era berean, helburu berarekin, lankidetza-ildoari eutsi zaio *Eusko Gorrak*, Pertsona Gorren Euskal Federazioaren Emakumearen Batzordearekin eta kontaktuak zabaldu dira emakume ijitoekin, sentsibilizazioa sortu eta euren partaidetza asoziatiboa sustatzen lagunduko duten proiektuak bultzatzeko.

Emakundek erantzuna eman die beste Autonomia-erkidego batzuetako Emakume-elkarteek gure erkidegoan burutzen diren jardueren inguruan eginiko informazio-eskaera guztiei. Orobat, informazioak, esperientziak eta baliabideak elkartrukatzeko jarduerak ahalbidetu ditu, baita gure Erkidegoko Emakume-elkarteen eta Estatuko bestelakoen arteko koordinazioa ere.

# III. Las Organizaciones Sociales y Empresariales

La participación de la sociedad, principalmente a través de sus grupos organizados o agentes sociales, sigue siendo un factor imprescindible para el desarrollo de las medidas planteadas en el III P.A.P.M.E.-E.G.P.P. y la consecución efectiva de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. En este sentido, Emakunde ha realizado también una labor de impulso, asesoramiento y formación a las organizaciones sociales y empresariales para que contribuyan al objetivo de la igualdad con el desarrollo de *Planes o Programas* orientados a sus propias plantillas, con sus políticas de comunicación o con sus actividades externas.

## Igualdad de Oportunidades en las Empresas y Organizaciones

La óptima utilización del potencial humano, factor consustancial al crecimiento y la competitividad en la Comunidad Autónoma de Euskadi y, consiguientemente, la incorporación de las mujeres a la vida profesional en igualdad de oportunidades que los hombres, requiere superar la segregación existente en el mercado laboral y revalorizar el trabajo que realizan las mujeres.

# III. Gizarte eta Enpresa Erakundeak

Gizartearen parte-hartzeak, bereziki antolatutako taldeen eta gizarte-agenteen bitartez gauzatzen denak, ezinbesteko faktorea izaten jarraitzen du, *III. PAPME-EGPP* planean ezarritako neurriak garatzeko eta emakume eta gizonen artean benetako aukera-berdintasuna lortzeko. Zentzu horretan, Emakundek gizarte- eta enpresa-erakundeak bultzatzeko, prestatzeko eta haiei aholku emateko lana ere egin du, erakunde horiek berdintasunaren helburuaren aldeko ahaleginean lagundu dezaten, beren langileentzako berariazko *Planak edo Programak* garatuz, edo beren hedabide-politiken edo kanpo jardueren bitartez.

## Aukera Berdintasuna Enpresa eta Erakundeetan

Giza baliabideen erabilera optimizatzea ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko hazkundea eta lehiakortasuna bermatzeko. Ondorioz, behar-beharrezkoa da emakumeak bizitza profesionalean txertatzea, gizonezkoen aukera berdinekin. Horretarako, lan-merkatuan nagusi den bereizketa gainditu beharra dago, eta emakumeek egiten duten lanari balio handiagoa eman behar zaio.

Las oportunidades para el desarrollo del empleo de las mujeres, derivadas tanto del marco normativo, favorecedor de la igualdad de oportunidades en el empleo y el mundo económico, como de las transformaciones en la vida económica y social serán mejoradas al eliminar los estereotipos sexistas acerca del trabajo y los modelos rígidos de carrera profesional para mujeres y hombres.

Por tanto, uno de los objetivos de Emakunde es sensibilizar a los diferentes agentes económicos y sociales e impulsar la realización de *Planes de Acción Positiva* en las empresas para que pongan en marcha en sus organizaciones Programas de *Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres* que incluyan medidas orientadas a elevar la competencia profesional de sus trabajadoras, incidiendo sobre aquellos factores que obstaculizan, cuantitativa y cualitativamente, una participación laboral igualitaria de mujeres y hombres.

Con este fin, el Gobierno Vasco creó, por *Decreto 424/1994*, el reconocimiento de *"Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades"* y Emakunde ha prestado apoyo técnico a las empresas que han iniciado *Programas o Planes* con estos objetivos.



La promoción de la igualdad en las empresas es hoy, también, una prioridad para Europa y en este sentido, uno de los objetivos del Fondo Social Europeo. Este hecho ha permitido que las actuaciones llevadas a cabo por Emakunde en este ámbito durante el 2005, hayan contado con la cofinanciación del citado F.S.E. Es por lo que la información sobre las actividades desarrolladas ha sido expuesta en el apartado dedicado a los *Programas Europeos*.

## Género y Medios de Comunicación

Los Medios de Comunicación, y especialmente la Televisión, constituyen un instrumento de enorme influencia para la construcción de nuevos modelos sociales que permitan avanzar hacia una sociedad más justa e igualitaria. Por ello, Emakunde ha venido trabajando desde su creación en la sensibilización de las y los profesionales de los medios. En este sentido, *"III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi: Enfoque de género en las Políticas Públicas"*, plantea entre sus objetivos el

Emakumeen enplegua garatzeko aukerak arauzko esparrutik (aukera-berdintasuna errazten du, enpleguan eta mundu ekonomikoan) eta bizitza ekonomiko eta sozialean gertatutako transformazioetatik eratortzen dira, eta aukera horiek hobetzen joango dira, lanari buruzko estereotipo sexistak eta emakume eta gizonentzako jarrera profesionaleko eredu zorrotzak ezabatu ahala.

Beraz, Emakundek agente ekonomiko eta sozialak sentsibilizatu nahi ditu, bai eta enpresetan *Ekintza Positiboko Planak* egitea sustatu ere, antolaketetan *Emakume eta Gizonen arteko Aukera-berdintasunerako Programak* abian jar ditzaten; programa horiek emakumezko langileen gaitasun profesionala handitzeko neurriak hartu behar dituzte barne, eta arreta berezia jarri behar da emakumezkoak eta gizonezkoak lanean berdintasunez parte hartzea kuantitatiboki eta kualitatiboki oztopatzen duten faktoreetan.



Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak *"Aukera Berdintasunaren Alorreko Erakunde Kolaboratzailea"* izenekoaren onarpena sortu zuen, *424/1994 Dekretuaren* bitartez, eta Emakundek laguntza teknikoa eman die helburu horiek lortzeko *Programak* edo *Planak* abiarazi dituzten enpresei.

Gaur egun, enpresetan berdintasuna sustatzea ere lehentasuna da Europarentzat eta, zentzu horretan, Europako Gizarte Funtsaren helburuetako bat da. Horregatik, 2005ean Emakundek esparru horretan burututako jarduerek Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzazioa izan dute. Hori dela eta, garatutako esku-hartzeei buruzko informazioa *"Europar Programak"* atalean azaldu da.

## Generoa eta Komunikabideak

Komunikabideak, eta bereziki Telebista, eragin izugarriko tresna dira bidezkoagoa eta berdintasun handiagokoa den gizarte baterantz aurrera egitea ahalbidetzen duten gizarte-eredu berriak eraikitzeko. Horregatik, sortu zenetik, Emakundek komunikabideetako profesionalak sentsibilizatzean jardun du. Era berean *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboen III. Plana: Genero-ikuspegia Politika Publikoetan" Planak*, bere helburuen artean, emakumeen irudi ez-estereotipatua eta haiek gi-

fomento de una imagen de las mujeres no estereotipada y la participación activa de las mismas en los programas de los medios de comunicación social.

El año 2005 ha supuesto un momento de inflexión y análisis del trabajo realizado hasta el momento en este campo. Emakunde ya inició anteriormente un proceso de acercamiento individualizado a los Medios de Comunicación Vascos para ofertarles un *Programa de Asesoramiento y Formación* para analizar su propio trabajo. El objetivo era crear grupos de trabajo estables en el seno de los medios para reflexionar, revisar y mejorar sus producciones y el tratamiento de mujeres y hombres en las mismas. Fruto de este acercamiento, comenzó su andadura un *Grupo de Trabajo* estable en Euskadi Irratia, emisora del grupo EITB. En el marco de este trabajo de reflexión e investigación, se avanzó en el diagnóstico de la participación, cuantitativa y cualitativa, de mujeres y hombres en las producciones de Euskadi Irratia y se elaboraron fichas de recogida de datos que son válidas para su utilización en otros medios. El trabajo de reflexión interna en el seno de Euskadi Irratia se extendió posteriormente a la televisión local Localia-Gipuzkoa.

En este sentido, el año 2005 desde Emakunde se ha planteado la necesidad de reconducir el trabajo integrando en el proceso a más medios y para ello se ha trabajado en el diseño de un *Programa* que posibilite la creación y puesta en marcha de un Grupo de Reflexión e Investigación con profesionales de diferentes medios.

## Asesoramiento a Programas y Actividades Externas

Además de solicitudes procedentes de la Administración, Emakunde atiende solicitudes de asesoramiento procedentes de entidades que desempeñan su actividad en el ámbito de la formación y desde asociaciones y ONGDs que promueven *Proyectos* en el marco de diversas convocatorias públicas. De los *Proyectos* asesorados durante el 2005 destacan:

### *En formación*

**A la Universidad**

– Escuela Universitaria de Enfermería de Donostia-San Sebastián. Organización del *"IV. Curso sobre Salud Sexual*

zarte-komunikabideetako programetan parte-hartze aktiboa izatea proposatzen du.

2005. urtea inflexio-puntua eta analisia egiteko unea izan da orain arte alor horretan egindako lanaren eremuan. Emakundek lehendik *Euskal Komunikabideetara* banan-banan hurbiltzeko prozesuari ekin zion, beraien lana aztertzeko *Aholku eta Prestakuntzarako Programa* bat eskaintzeko. Helburua komunikabideen barruan Lan-talde egonkorrak sortzea zen, haien produkzioak eta horietan emakume eta gizonei emandako tratamendua aztertu, berrikusi eta hobetzeko. Hurbilketa horren ondorioz, EITB taldeko Euskadi Irratian lan-talde egonkor bat jarri zen abian. Gogoeta eta ikerketarako lanaren esparruan, emakumeek eta gizonek Euskadi Irratiko produkzioetan duten partaidetza kualitatibo eta kuantitatiboen diagnostikoa egin eta datuak biltzeko fitxak osatu ziren. Fitxa horiek beste komunikabide batzuetan ere erabili daitezke. Euskadi Irratiko barne-gogoeta Localia-Gipuzkoa tokiko telebistara hedatu zen gero.

Ildo horretatik, 2005. urtean lana bideratu beharra dagoela iritzi dio Emakundek eta prozesuan komunikabide gehiago sartu behar dituela erabaki. Horretarako, hainbat komunikabidetako profesionalez osatutako gogoeta- eta ikerketa-talde bat sortu eta abian jartzea ahalbidetuko duen *Programa* baten diseinuan aurrera egin du.

## Kanpo Programa eta Jardueretarako Aholkularitza

Administraziotik datozkion eskaerez gain, Emakundek aholkularitza-eskaerak erantzuten dizkie, bereziki, honako hauei: alde batetik, prestakuntzaren esparruan jarduten duten erakundeei eta, bestetik, zenbait deialdi publikoren esparruan *Proiektuak* sustatzen dituzten elkarte eta GKEei. 2005ean egindako aholkularitza lanen artean, honakoak nabarmentzen dira:

### *Prestakuntzan*

**Unibertsitateari**

— Donostia-San Sebastiango Erizaintzako Unibertsitate Eskola. *"Sexu eta Ugaltze Osasunari buruzko IV. Ikastaroa"*

*y Reproductiva"*, en colaboración con Medicus Mundi de Gipuzkoa.

**A otras entidades**

– Fundación Leizaola. Organización de las *"VI Jornadas sobre Mujeres en el Siglo XXI"* celebradas en el Campus de Leioa de la UPV.

– EAJ-PNV. Diseño del *Programa de Formación para Mujeres Políticas.*

– Red de Mujeres Rurales Alavesas. Organización del *VII Encuentro de la Red* bajo el título *"Mujer: el Valor del Cuidado"*.

– Museo Artium. Organización de un *Programa de Conferencias y Mesas Redondas* paralelo a la *Exposición* procedente del Museo Reina Sofía sobre violencia contra las mujeres *"Cárcel de Amor"*.

*En proyectos*

Emakunde/Instituto de la Mujer ha ofrecido asesoramiento a ONGDs que han solicitado información sobre los *Programas de Cooperación al Desarrollo* del Gobierno Vasco o sobre cómo incorporar la perspectiva de género en *Proyectos* concretos.

antolatzea, Gipuzkoako Medicus Mundirekin elkarlanean.

**Bestelako erakundeei**

— Leizaola Fundazioa: *"XXI. Mendeko Emakumeei buruzko VI. Jardunaldiak"* antolatzea, EHUko Leioako campusean.

— EAJ-PNV. *Emakume Politikarientzako Prestakuntza-programen* diseinua.

— Arabako Landa Eremuko Emakume Sarea. *Sarearen VII. Topaketa* antolatzea *"Emakumea: Zaintzaren Balioa"* lelopean.

— Artium Museoa. *Hitzaldiz eta Mahainguruz Osatutako Programa* antolatzea, Reina Sofia Museotik emakumeen aurkako indarkeriari buruz datorren *"Cárcel de Amor"* izeneko erakusketarekin batera.

*Proiektuetan*

Hainbat GGKEk informazioa eskatu diote Emakunderi, Eusko Jaurlaritzako *Garapenerako Lankidetza Programei* buruz, edo genero-ikuspegia *Proiektu* zehatzetan txertatzeko moduari buruz, eta Emakundek aholkularitza eskaini die erakunde horiei guztiei.

# IV. Formación

11. grafikoa. **Emakundek antolaturiko jardunaldiak gomendagarritzat edo oso gomendagarritzat dauzkaten bertaratuen ehunekoa.**

Gráfico 11. **Porcentaje de personas asistentes que consideran las jornadas organizadas por Emakunde como recomendables o muy recomendables.**

12. grafikoa. **Emakundek antolaturiko jardunaldietan landutako gaiak garrantzitsutzat edo oso garrantzitsutzat dauzkaten bertaratuen ehunekoa.**

Gráfico 12. **Porcentaje de personas asistentes que consideran que los temas tratados en las jornadas organizadas por Emakunde son importantes o muy importantes.**

## Formación Interna

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer desarrolla su actividad formativa dirigida tanto al propio personal del Instituto como a profesionales de las distintas Administraciones y de otros Organismos y agentes sociales.

La formación interna se aborda tanto a través de la organización de cursos propios como de la asistencia a diferentes foros de reflexión y debate, seminarios, conferencias, etc.

En este sentido, cabe destacar la participación del personal técnico del Instituto en los siguientes foros de reflexión y debate:

# IV. Prestakuntza







## Barne-prestakuntza

Emakundek prestakuntza-jarduera garatzen du, erakundeko langileentzat eta Administrazioetako eta bestelako Erakunde eta gizarte-agenteetako profesionalentzat.

Emakundek ikastaro propioak antolatzen ditu, eta, gainera, hainbat hausnarketa- eta eztabaida-forotan, mintegitan, hitzalditan eta abarretan parte hartzen du.

Ildo horretan ondoko hausnarketa- eta eztabaida-forotan parte hartu izana azpimarratu behar da:

— *Congreso "SARE 2005: Niñas son, Mujeres serán"*, organizado por Emakunde y celebrado en Donostia-San Sebastián.

— *"Jornadas Internacionales de la Unidad de Igualdad de Género"*, organizadas por la Junta de Andalucía.

## Formación Externa

### Seminarios

A lo largo del año 2005 se ha continuado con dos grupos de trabajo en el marco del *"Programa de Coordinación de Políticas Locales en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres"* dirigido a personal técnico responsable de impulsar políticas de igualdad en la Administración Local. Los grupos han estructurado su trabajo en torno al empoderamiento de las mujeres y los presupuestos con enfoque de género.

Además, en el marco del *"Programa NAHIKO para la Prevención de la Violencia Contra las Mujeres desde el Marco Escolar"*, se han realizado los siguientes *Seminarios* con el profesorado participante:

— *"Entre Desigualdades y Diferencias: Democracias, Poder y Pedagogía"*, que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz en marzo de 2005.

— *"Prevenir el Maltrato desde la Escuela"*, que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz en noviembre de 2005.

### Máster

Con el objetivo de proporcionar formación cualificada a profesionales que desarrollan o van a desarrollar su trabajo en el campo de la igualdad de oportunidades se ha participado en la organización de los siguientes cursos:

— *"Máster de Igualdad de Mujeres y Hombres"*, en colaboración con la U.P.V. El objetivo de este *Máster* es formar nuevas agentes de igualdad de oportunidades que puedan trabajar en el diseño y desarrollo de políticas de igualdad en diversas entidades y organizaciones, y especialmente, en la Administración. En el marco de este

13. grafikoa. **Edukiak, metodologia, hizlariak, erabilgarritasuna, partehartzea eta antolakuntza kontuan harturik, Emakundek antolatutako jardunaldiei buruzko gogobetetasuna handitzat edo oso handitzat daukaten pertsonen ehunekoa.**

Gráfico 13. **Porcentaje de personas asistentes que consideran que el grado de satisfacción con respecto a las jornadas organizadas por Emakunde es alto o muy alto, atendiendo a los Contenidos, Metodología y Ponentes, Utilidad, Participación y Organización.**




— *2005eko SARE Biltzarra: "Egungo Neskak, etorkizuneko Emakumeak"*, Emakundek antolatua eta Donostian egina.

— *"Genero Berdintasuneko Unitatearen Nazioarteko Jardunaldiak"*, Andaluziako Gobernuak antolatua.

## Kanpo-prestakuntza

### Mintegiak

2005. urtean zehar Tokiko Administrazioan berdintasun-politikak sustatzearen arduradun diren langile teknikoei zuzenduriko *"Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuneko Tokiko Politikak Koordinatzeko Programaren"* esparruan bi lan-taldeekin lanean jarraitu da. Taldeek emakumeen boteretzearen eta genero-ikuspegiko aurrekontuen inguruan egituratu dute beren lana.

Gainera, *"Emakumeen Aurkako Indarkeria Eskolatik Prebenitzeko NAHIKO Programaren"* esparruan ondoko mintegiak egin dira parte hartzen duten irakasleekin:

— *"Desberdintasunen eta Bestelakotasunen Artean: Demokraziak, Boterea eta Pedagogia"*, 2005eko martxoan Vitoria-Gasteizen egindakoa.

— *"Tratu Txarrak Eskolatik Prebenitzea"*, 2005eko azaroan Vitoria-Gasteizen egindakoa.

### Masterra

Beren lana aukera-berdintasunaren eremuan egiten duten edo egingo duten profesionalei prestakuntza kualifikatua eskaintzeko helburuarekin, ondoko ikastaroen antolakuntzan parte hartu da:

— "*Emakume eta* Gizonen Berdintasunari *Buruzko* Masterra*", EHUrekin elkarlanean. Master* horren bitartez, aukera-berdintasunaren alorreko agente berriak trebatu nahi dira, hainbat enpresa eta erakundetan eta, bereziki, Administrazioan, berdintasun-politiken diseinuan eta garapenean jarduteko aukera izan dezaten. *Master* ho-

*Máster* el Instituto ha participado con el módulo III del mismo sobre *"Políticas Públicas de Igualdad".*

– *"Máster en Intervención en Violencia contra las Mujeres"*, en colaboración con la Universidad de Deusto. El objetivo de este *Máster* es capacitar a las personas profesionales relacionadas con el tema en la identificación, diagnóstico e intervención ante la violencia contra las mujeres. La primera edición comenzó en octubre de 2003 y finalizó en junio de 2005. Además, en octubre de 2005 comenzó la tercera edición del mismo.




### Cursos

– *"El Proyecto de Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres"* en el marco del *Máster en Intervención en Violencia Contra las Mujeres*, organizado por la Universidad de Deusto en colaboración con Emakunde.

– *"Las Políticas Públicas de Igualdad en la Comunidad Autónoma de Euskadi"*, en el marco del *Máster en Igualdad de Género y Políticas de Igualdad*, organizado por la Universidad de Vigo.

– *"Las Políticas de Igualdad de Oportunidades en el Marco Autonómico. La experiencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi"*, en el marco del *Curso de Verano "Políticas Públicas de Igualdad y Perspectiva de Género"*, organizado por la Universidad de A Coruña.

– *"La Ley Vasca para la Igualdad de Mujeres y Hombres"*, en el marco del *"Curso Sobre Aplicación de la Perspectiva de Género en las Administraciones Públicas"*, organizado por la Dirección General de la Mujer de la Consejería de Empleo y Mujer de la Comunidad de Madrid.




– *"La Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres"*, en el marco del *"V Curso sobre Salud Sexual y Reproductiva"*, organizado por Medicus Mundi en colaboración con la Universidad del País Vasco.




rren markoan, Erakundeak *"Berdintasun-politika Publikoak"* izeneko III. moduluan parte hartu du.

– *"Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurrean Esku-hartzeari Buruzko Masterra"*, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean. *Master* horren helburua emakumeen aurkako indarkeria identifikatzearekin, diagnostikatzearekin eta haren aurrean esku-hartzearekin zerikusia duten profesionalak trebatzea da. Lehenengo ekitaldia 2003ko urrian hasi zen eta 2005eko ekainean amaitu. Bestalde, 2005eko urrian masterraren hirugarren ekitaldia hasi zen.

**Ikastaroak**

– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lege Proiektua"*, Deustuko Unibertsitateak Emakunderekin elkarlanean antolatutako *Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurrean Esku-hartzeari* buruzko *Masterraren* esparruan.

– *"Berdintasun-politika Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan"*, Vigoko Unibertsitateak antolatutako *Genero Berdintasunari eta Berdintasun Politikari* buruzko *Masterraren* esparruan.

– *"Aukera-berdintasuneko Politikak Autonomia-esparruan. Euskal Autonomia Erkidegoko Esperientzia"*, Coruñako Unibertsitateak antolatutako *"Berdintasun Politika Publikoak eta Genero Ikuspegiari"* buruzko Udako Ikastaroaren esparruan.




– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legea"*, Madrilgo Komunitateko Enplegu eta Emakume Saileko Emakume Zuzendaritza Nagusiak antolatutako *"Administrazio Publikoetako Genero Ikuspegiaren Aplikazioari"* buruzko ikastaroaren esparruan.

– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea"*, Medicus Mundik Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatutako *"Sexu eta Ugaltze Osasunari buruzko V. Ikastaroaren"* esparruan.

– *"La Intervención Institucional Ante la Violencia Contra las Mujeres"*, en el marco del *Máster en Intervención en Violencia Contra las Mujeres*, organizado por la Universidad de Deusto en colaboración con Emakunde.

– *"La Ley de Igualdad: Organismos y Órganos de Coordinación y la Defensoría para la Igualdad"*, en el marco del *Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres*, organizado por la Universidad del País Vasco en colaboración con Emakunde.

– *"Políticas de Igualdad"*, en el marco del curso selectivo de secretaría-intervención de la escala de funcionarios de la Administración Local con habilitación de carácter nacional, organizado por el Instituto Vasco de Administración Pública.

**Asistencia a Jornadas**

– *"Encuentro Internacional Sobre Derecho Penal y Género"*, organizado en Sevilla por el Instituto Andaluz de la Mujer.

– *"III Jornadas sobre Prostitución. Descripción y Propuestas Ante la Situación Actual de la Prostitución: Ellas Proponen"*, organizadas en Bilbao por la Asociación Askabide.

— *"Erakundeen Esku-hartzea Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurrean"*, Deustuko Unibertsitateak Emakunderekin elkarlanean antolatutako *"Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurrean Esku-hartzeari"* buruzko *Masterraren* esparruan.

— *"Berdintasunerako Legea: Erakundeak, Koordinazio-organoak eta Berdintasunerako Defentsoria"*, Euskal Herriko Unibertsitateak Emakunderekin elkarlanean antolatutako *Emakume eta Gizonen Berdintasunari* buruzko *Masterraren* esparruan.

— *"Berdintasun Politikak"*. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak gaikuntza nazionala duten Tokiko Administrazioko Funtzionarioentzat antolatutako Idazkaritza/esku-hartzeari buruzko hautapen-ikastaroaren esparruan.

**Jardunaldietara joatea**

— *"Zuzenbide Penalari eta Generoari Buruzko Nazioarteko Topaketa"*, Andaluziako Emakumeen Erakundeak Sevillan antolatua.

— *"Prostituzioari Buruzko III. Jardunaldiak. Deskribapena eta Proposamenak Prostituzioaren Egungo Egoeraren Aurrean: Haiek Proposatzen Dute"*, Askabide elkarteak Bilbon antolatua.

# V. Sensibilización

El logro efectivo del objetivo de la igualdad requiere diversificar y enriquecer los patrones socioculturales de conducta de mujeres y hombres con miras a alcanzar la eliminación de perjuicios y las prácticas consuetudinarias y de cualquier índole que estén basados en la idea de la inferioridad o superioridad de cualquiera de los sexos o en funciones estereotipadas de hombres y mujeres. Se trata, por tanto, de superar estos modelos, limitados en función del género, incorporando todos los valores, capacidades y comportamientos para construir una cultura común enriquecida por las diferencias personales. Informar a la sociedad en general sobre el sentido y el interés de los objetivos que los poderes públicos se proponen alcanzar es una estrategia facilitadora para el desarrollo de las medidas necesarias a la consecución de esos objetivos.

# V. Sentsibilizazioa

Berdintasunaren helburua benetan lortzeko, behar-beharrezkoa da emakume eta gizonen jarrera-eredu soziokulturalak dibertsifikatzea eta aberastea, sexu baten edo bestearen gutxiagotasunaren edo nagusitasunaren ideian edo emakume edo gizonen funtzio estereotipatuetan oinarritutako aurreiritziak eta ohiturazko eta bestelako praktikak ezabatzea lortzeko. Beraz, generoak mugatuta dauden eredu horiek gainditu behar dira eta balio, gaitasun eta jarrera guztiak ekarri, horrela, desberdintasun pertsonalek aberastutako "baterako kultura" bat eraikitzeko. Gizarteari oro har eta gizartean eragiten duten profesional, gizarte-agente eta bestelako erakundeei informazio egokia eskaini behar zaie, botere publikoek lortu nahi dituzten helburuen zentzuari eta interesari buruz. Izan ere, estrategia horrek "errazten du" helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak garatzea.

En consecuencia, uno de los cometidos de Emakunde es la realización de acciones de sensibilización social entre las que merecen ser destacadas las *Jornadas*, las *Campañas*, la *Revista*, los *Premios Emakunde* y la continuada participación en *Foros de debate* y en los *Medios de comunicación*.

## Foro para la Igualdad: NARO 2005

A fin de reforzar la labor de sensibilización que viene realizando, Emakunde puso en marcha el *"Foro para la Igualdad NARO"*. Se trata de un *Foro* de carácter anual cuyo objetivo es visibilizar las actividades de sensibilización y formación que en relación con la igualdad de mujeres y hombres se realizan en la Comunidad Autónoma de Euskadi, tanto desde las Instituciones Públicas como desde colectivos y entidades privadas, generando a su vez sinergias que fortalezcan dichas actuaciones. El *Foro NARO* pretende así convertirse en un espacio rico y fecundo que sirva de marco anual a las entidades públicas y privadas para ubicar sus iniciativas a favor de la igualdad de mujeres y hombres.




*NARO 2005* se celebró entre los días 3 y 13 de mayo de 2005 y las actividades realizadas estuvieron relacionadas con los siguientes ámbitos:




- Mainstreaming de Género.
- Planes de Igualdad.
- Violencia Contra las Mujeres.
- Coeducación.
- Economía y Empleo.
- Pensamiento Feminista.

Participaron en el foro 35 entidades y en las dos semanas que duró, se realizaron un total de 51 actividades. Esto supuso un aumento del 29% en el caso de las entidades y del 59% en el caso de las actividades, lo que indica que NARO va convirtiéndose en un referente importante en la Comunidad Autónoma de Euskadi.



## Jornadas

**Congreso Internacional SARE 2005**

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer puso en marcha, en 2003, los *Encuentros SARE*, que pretenden ser un *Foro* de reflexión, innovación e intercambio sobre temas novedosos

Hori dela eta, Emakunderen zeregin nagusien artean, gizarte-sentsibilizazioko ekintzak burutzea dago. Horien artean, honakoak nabarmentzen dira: *Jardunaldiak*, *Kanpainak*, *Aldizkaria*, *Emakunde Sariak* eta *Eztabaida-foroetan* eta *Hedabideetan* izandako etengabeko parte-hartzea.

## Berdintasunerako Gunea: 2005 NARO

Emakundek, egiten duen sentsibilizazio-lana indartzeko helburuarekin, *"NARO Berdintasunerako Gunea"* ekimena jarri zuen abian. Urteroko izaera izango duen *Foroa* da eta bere helburua da emakume eta gizonen berdintasunarekin erlazionaturik Euskal Autonomia Erkidegoan hala Erakunde Publikoetatik nola kolektibo eta erakunde pribatuetatik egiten diren jarduerak ikusgarri egitea, era berean jarduera horiek indartzen dituzten sinergiak sortuz. *NARO Guneak* erakunde publiko eta pribatuei emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekimenak kokatzeko urteko esparru gisa balio izateko espazio aberats eta emankor bihurtzeko asmoa du.

*NARO 2005* maiatzaren 3 eta 13 bitartean izan zen. Egindako jarduerek ondoko esparruekin zuten zerikusirik:




- Generoko Mainstreaminga.
- Berdintasun-planak.
- Emakumeen Aurkako Indarkeria.
- Hezkidetza.
- Ekonomia eta Enplegua.
- Pentsaera Feminista.

Foroan iraun zuen bi asteetan 35 erakundek parte hartu zuten, eta guztira 51 jarduera burutu ziren. Horrek esan nahi du erakunde partaideen kopuruak %29 gora egin zuela eta jardueren kopuruak %59. Hortaz, NARO garrantzi handiko erreferente bihurtzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan

## Jardunaldiak

**SARE 2004 Nazioarteko Kongresua**

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak 2003an jarri zituen abian *SARE Topaketak*, genero-berdintasunarekin erlazionaturiko gaien inguruko hausnarketa-, berrikuntza-

relacionados con la igualdad de género. Estos *Encuentros* se celebran anualmente y pretenden reunir a personas interesadas, expertas y profesionales del ámbito público y privado, tanto de nuestra Comunidad como del ámbito estatal e internacional.

La edición *SARE 2005*, se centró en el tema de *"las niñas"*. Para abordar este tema, se organizó un *Congreso Internacional* bajo el título *"Niñas son, Mujeres serán"* que tuvo lugar los días 8 y 9 de noviembre de 2005 en el Palacio Kursaal de Donostia-San Sebastián. El objetivo de este *Congreso* era analizar la incidencia del género en la construcción de la identidad desde diferentes ámbitos: familia, escuela, medios de comunicación y afectividad. Se trataba, en definitiva, de reflexionar sobre la incidencia del género en el proceso de socialización primaria a fin de poder contribuir al empoderamiento de las futuras mujeres adultas.

Paralelamente a la celebración del *SARE 2005*, se actualizó su *Página Web* específica www.sare-emakunde.com, con objeto de alcanzar una amplia difusión de los *Encuentros*, sus contenidos, sus valoraciones y, en su caso, detalles organizativos.










### Otras jornadas

– *"Género y Situaciones Emergentes en los Procesos de Socialización" y "Algunos Retos de las Organizaciones en relación con Mujeres y Hombres"*. El objetivo de estas *Jornadas* era dar a conocer los trabajos realizados en el marco de la convocatoria de Emakunde para subvencionar proyectos de investigación o acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres ligados a estas áreas. Las *Jornadas* se celebraron el 5 y el 12 de mayo de 2005 en el marco del *Foro para la Igualdad NARO 2005*.

– *"Experiencias de Igualdad en el Ámbito Empresarial y Sindical"*, en el marco de la *Semana Europea de la Calidad*. El objetivo de esta *Jornada* era dar a conocer los trabajos realizados en el marco de la convocatoria de Emakunde para subvencionar a empresas y entidades privadas la contratación de una Consultoría Homologada para la realización de un diagnóstico sobre igualdad



eta elkartruke-foroa izateko helburuarekin. *Topaketa* horiek urtero egiten dira eta esparru publiko eta pribatuko pertsona interesatuak, adituak eta profesionalak biltzeko asmoa du, hala gure Erkidegokoak nola Estatukoak edo nazioartekoak.

*2005eko SAREren* ekitaldiaren gai nagusia *"neskak"* izan ziren. Gaiari ekiteko *Nazioarteko Kongresua* antolatu zen, "*Egungo neskak, etorkizuneko Emakumeak"* izenburupean, 2005eko azaroaren 8 eta 9an, Donostiako Kursaal Jauregian. *Biltzarraren* helburua zen generoak norberaren identitatea eraikitzeko duen eragina hainbat alderditatik aztertzea: familiatik, eskolatik, komunikabideetatik eta afektibitatetik. Kontua zen, azken batean, generoak lehenengo gizarteratze-prozesuan duen eraginari buruz gogoeta egitea, etorkizuneko emakumeen boteretzea laguntzeko xedez.



*SARE 2005* egiten ari zen bitartean, bere *Web Orria* www.sare-emakunde.com eguneratu zen, *Topaketak*, edukiak, balorazioak eta, behar izanez gero, antolakuntzaren xehetasunak ahalik eta gehien ezagutarazteko.



## Beste jardunaldi batzuk

– *"Generoa eta Egoera Emergenteak Sozializazio Prozesuetan"* eta *"Erakundeen Hainbat Erronka Emakume eta Gizonekiko"*. Alor horiei lotutako ikerketa-proiektuak edo ekintza pilotuak diruz laguntzeko Emakundek ateratako deialdiaren esparruan eginiko lanak ezagutaraztea izan da *Jardunaldi* horien helburua. *Jardunaldiok* 2005eko maiatzaren 5ean eta 12an egin ziren, *NARO 2005 Berdintasunerako Gunearen* esparruan.



– *"Berdintasun Esperientziak Enpresa eta Gizarte Alorretan"*, *Kalitatearen Europar Astearen* esparruan. Enpresek eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunaren diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko Aholkularitza Homologatua kontratatzea diruz laguntzeko Emakundek ateratako deialdiaren esparruan egindako lanak ezagutaraztea izan da *Jardunaldi* horren hel-

de mujeres y hombres y un plan de igualdad. Se trata, en definitiva, de ir incorporando la igualdad de mujeres y hombres como criterio de análisis en los procesos de mejora y calidad.

## Conferencias Impartidas por Emakunde

Con el fin de favorecer la reflexión y dar a conocer el trabajo de las Instituciones en torno a la igualdad de oportunidades, Emakunde ha impartido *Conferencias* a petición de diferentes Entidades, Asociaciones de Mujeres, Ayuntamientos y Centros Culturales entre las que merecen destacar:



– *"II Jornadas Euskadi y Catalunya: Caminando hacia la Igualdad de Género"*, celebrada en marzo de 2005 en La Floresta (Lleida).

– Seminario *"Contenidos No Sexistas en la Programación Infantil"*, organizado por el centro de formación del Instituto Oficial de Radio y Televisión (OIRTV) de RTVE en Madrid en septiembre de 2005. En el *Seminario* participaron profesionales de diferentes televisiones y especialistas en género e infancia para la elaboración de una *Guía de Contenidos No Sexistas en la Programación Televisiva Infantil.*

– *"La Coeducación en Euskadi: Experiencias Concretas"* en el marco del *Encuentro Estatal "Intercambia 2005"*, celebrado en Madrid en octubre de 2005.



– *"Prevención del Maltrato desde la Escuela: Proyecto NAHIKO"* en el marco de las *Jornadas sobre "Prevención del Maltrato"* organizadas en diciembre de 2005 por el Ayuntamiento de Tolosa.

– *"La Ley Vasca para la Igualdad de Mujeres y Hombres"* impartida en el marco del *"Foro Pekín + 10: Una Apuesta por la Igualdad"* organizado en Madrid por el Círculo de Bellas Artes.

– *"La Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y su aplicación en el Ámbito Local"*, organizada en Vitoria-Gasteiz por el Ayuntamiento.

burua. Kontua, azken batean, hobekuntza- eta kalitate-prozesuetan emakume eta gizonen berdintasuna analisi-irizpide gisa txertatzea da.



## Emakundek Emandako Hitzaldiak

Hausnarketa laguntzeko eta aukera-berdintasunaren inguruan Erakundeek egindako lana ezagutzera emateko helburuarekin, Emakundek Hitzaldiak eman ditu hainbat Erakundek, Emakume-elkartek, Udalek eta Kultura-etxek eskatuta, eta horien artean honakoak nabarmendu behar dira:

– *"Euskadi eta Kataluniaren arteko II. Jardunaldiak: Genero Berdintasuneranzko Bidean"*, 2005eko martxoan La Forestan (Lleida) eginak.

– *"Eduki Ez-sexistak Haur-programazioan" Mintegia*, Irrati eta Telebistako Institutu Ofizialeko (OIRTV) prestakuntza-zentroak Madrilen antolatua, 2005eko azaroan. *Mintegian* hainbat telebistatako espezialistek eta genero eta haurtzaroan adituek parte hartu zuten, *Telebistako Haur-programazioan Eduki Ez-sexisten Gida* lantzeko.



– *"Euskadiko Hezkidetza: Esperientzia Zehatzak"*, 2005eko urrian Madrilen antolatutako *"Intercambia 2005" Estatu-mailako Jardunaldien* esparruan.

– *"Tratu Txarrak Eskolatik Prebenitzea: NAHIKO Proiektua"*, Tolosako Udalak 2005eko abenduan antolatutako *"Tratu Txarraren Prebentzioari"* buruzko *Jardunaldien* esparruan.



– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legea"*, Arte Ederren Zirkuluak Madrilen antolatutako *"Pekin + 10 Foroa: Berdintasunaren Aldeko Apustua"* izenekoaren esparruan.

– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Tokian Tokiko Aplikazioa"*, Gasteizko Udalak hirian antolatua.

– *"Últimas Iniciativas en la Intervención Institucional en Materia de Violencia Contra las Mujeres"*, impartida en el *Congreso sobre Violencia Contra las Mujeres*, organizado en Vitoria-Gasteiz por el Ayuntamiento y la Diputación Foral de Álava.

– *"Implicaciones de la Ley de Igualdad para las Administraciones Locales Vascas"*, organizada en Vitoria-Gasteiz por EUDEL/Asociación de Municipios Vascos.

## Campañas de Comunicación

**8 de marzo**




Los lemas utilizados para la *Campaña del 8 de Marzo* de 2005 han sido *"Ella no tiene tiempo para sí misma, para su hermano sí"*, *"Ella no tiene una empresa, su marido sí"*, *"Ella no tiene medallas, su hija sí"*.

Con esta *Campaña de Sensibilización* se ha querido hacer visible el coste de oportunidad que tiene para las mujeres la asignación social de la responsabilidad del cuidado. Los soportes publicitarios utilizados han sido prensa y servicios exteriores. Se ha completado con diversos artículos en prensa, entrevistas y el envío de carteles a los diferentes Organismos e Instituciones de nuestra Comunidad.

Se editaron un total de 5.416 carteles de diferentes tamaños para su colocación en marquesinas de autobuses y cabinas telefónicas, así como para su distribución por instituciones, asociaciones, ONGDs, etc. Además de la cartelería, se distribuyeron 15.000 postales con las mismas imágenes y mensajes que los carteles durante la primera quincena de marzo y se incorporaron un total de 140 cuñas de radio desde el día 1 al 8 de marzo. Finalmente, se realizaron dos anuncios para revistas de tamaño A-4.

Siendo una campaña cofinanciada por el F.S.E. se ha hecho referencia a ella en esta *Memoria* en el apartado de *Programas Europeos*.

– *"Erakundeen Esku-hartzearen Azken Ekimenak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Alorrean"*, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak Gasteizen antolatua.

– *"Berdintasunerako Legearen Inplikazioak Tokiko Euskal Administrazioentzat"*, EUDEL/Euskadiko Udalen Elkarteak Gasteizen antolatua.

## Komunikazio Kanpainak




### Martxoaren 8a

2005eko *Martxoaren 8ko Kanpainan* honako lema hauek erabili dira: *"Hark ez du astirik berarentzat, baina bere nebarentzat bai", "Hark ez du enpresarik, baina bere senarrak bai"* eta *"Hark ez du dominarik, baina bere alabak bai".*

*Sentsibilizazio-kanpaina* horrekin ikusgarri egin nahi izan da gizartean emakumeei egokitu zaien zaintzaren ardurak dakarzkien aukera-kostuak. Erabilitako publizitate-euskarriak prentsa eta kanpo-zerbitzuak izan dira. Osatzeko artikuluak eta elkarrizketak argitaratu dira prentsan eta kartelak igorri dira gure Erkidegoko Elkarte eta Erakundeetara.

Guztira 5.416 kartel argitaratu ziren, tamaina desberdinekoak, autobus-geltokietako markesinetan eta telefono-kabinetan jartzeko, baita erakunde, elkarte, GGKE eta abarren artean banatzeko ere. Kartelez gain, karteletako irudi eta mezu berak zeuzkaten 15.000 postal banatu ziren martxoko lehenengo hamabostaldian, eta irratietan 140 iragarki eman ziren martxoaren 1etik 8ra bitartean. Azkenik, aldizkarietan A-4 tamainako bi iragarki ere argitaratu ziren.

EGIFek finantzatutako kanpaina izanik, Europar Programei dagokien atalean ere aipatua izan da Memoria honetan.




**25 de noviembre**

El *25 de noviembre* es el *"Día Internacional para la Erradicación de la Violencia Contra las Mujeres"*. La violencia que se ejerce en sus diferentes formas contra las mujeres supone un grave atentado contra su integridad física y moral y un ataque directo a su dignidad como personas. Por tanto, es una grave violación de los derechos humanos de las mujeres y un problema social que requiere la implicación de toda la sociedad en su conjunto. Desde las Instituciones se está abordando este problema tanto desde la investigación, sensibilización y prevención, como a través de medidas para la protección y asistencia (jurídica, psicológica, económica, de acogida...) a las víctimas, para enfrentarse con las mayores garantías posibles a la grave situación en que se encuentran. En este marco, se llevó a cabo una *Campaña* con diversos ejes de actuación:

Por un lado, se realizó una *Campaña Interinstitucional* dirigida, principalmente, a las posibles víctimas de maltrato. Se elaboraron y expusieron en diversos soportes 7.200 carteles cuyo contenido informaba sobre qué hacer en estos casos y los recursos y ayudas existentes en nuestra comunidad. Esta información fue, asimismo, insertada, a página entera, en todos los diarios de nuestra Comunidad y en cuñas radiofónicas elaboradas a tal efecto.

Las entidades participantes en esta la *Campaña* fueron:

– Presidencia del Gobierno Vasco.

– Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

– Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

– Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

*Se ha iniciado el trabajo de difusión y desarrollo normativo de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres*

*El 18 de febrero de 2005 el Parlamento Vasco aprobó la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

tzu berrien beharrak detektatzeko eta salaketaren tramitazioari buruz aholku emateko, dauden eskubideak errespetatzen ez diren kasuetan. *Informazio-lan* hori osatzeko, kasuak Udaletako, Foru Aldundietako edo Administrazioaren beste Organo batzuetako Zerbitzuetara bideratzen dira.

## Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea

2005eko otsailaren 18an, Eusko Legebiltzarrak *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* onartu zuen. Azken testua lantzeko prozesu luze, ireki eta gardenaren emaitza izan da. Lanak hiru urte baino gehiago iraun du eta, urte horietan, Erakundeak ahalegin handia egin du albait eta iritzi eta ikuspunturik gehien bateratzeko, testua ahalik eta adostuena eta onena izateko helburuz. Ahalegin horri esker, *Legeak* gure Erkidegoko gehiengoaren babes politiko eta soziala lortu du.

*Lege* aitzindaria da, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen esparruan, emakumeen diskriminazioaren gaiari era globalean eta sektore anitzen ikuspegitik heltzen dio eta, horrela, diskriminazioa azaleratzen den eremu guztietan eragiten du (Partaidetza Sozio-politikoa, Hezkuntza, Lana, Kultura, Komunikabideak, Osasuna, Indarkeria, etab.). Horrez gain, legezko testuetan formalki onartutako berdintasun-eskubidearen aplikazio praktiko eta eraginkorra bermatzeko egiturak eta neurri zehatz eta sakonak jasotzen ditu Legeak.

*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* dela-eta Erakundeak 2005ean aurrera eraman dituen jarduerei dagokienez, aipatu beharra dago garrantzi handiko lana egin dela *Legea* ezagutarazteko, dela testua hainbat euskarriren bidez ezagutaraziz, dela *Sentsibilizazioa* eta *Prestakuntza* helburu zituzten hainbat ekimenetan parte hartuz.

*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen difusioa eta araudi-garapena egiteko lanari ekin zaio*

*2005eko otsailaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zuen.*

Bestalde, *Legearen* araudi-garapenerako lanari ekin zaio. Zehazki, ondorengo arau hauen *Zirriborroak* lantzen hasi dira:

– Decreto por el que se establece la *Estructura Orgánica y Funcional* de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

– Decreto de regulación de la *Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

– Decreto de regulación de la *Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres*.

– Decreto de regulación de la *Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.*

– Decreto de regulación de las *Unidades para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

– Norma reguladora de la *Entidad de Participación de las Mujeres y del Movimiento Asociativo*, prevista en el artículo 24.5 de la *Ley 4/2005.*

– Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen *Egitura Organikoa eta Funtzionala* finkatzen duen Dekretua.

– *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordea* arautzeko Dekretua.

– *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea* arautzeko Dekretua.

– *Genero-inpaktuaren Aldez Aurreko Ebaluazioa* arautzeko Dekretua.

– *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Unitateak* arautzeko Dekretua.

– *Emakumeek eta Elkartze Egiturak Parte Hartuko duten Erakundea* erregulatzeko Araua. Erakundearen sorrera *4/2005 Legearen* 24.5 artikuluan jasotzen da.

# VII. Estudios, Publicaciones, Centro de Documentación

## Estudios

Durante los últimos tiempos, se hace cada vez más patente el interés de las Administraciones Públicas en conocer la realidad social a la que sirven, interés que evoluciona hacia ópticas cada vez más complejas que se corresponden con análisis crecientemente matizados y sofisticados. El objetivo último es facilitar el desarrollo de políticas públicas más eficaces en respuesta a los diversos sectores que integran la sociedad. Dentro de esta actividad pública en la investigación social, Emakunde realiza *Informes Anuales sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en Euskadi*. Realiza, asimismo, un *Seguimiento de la Actuación de los Poderes Públicos* a fin de analizar el equilibrio entre las *Propuestas* realizadas y los *Programas* o *Actuaciones* llevados a cabo.

# VII. Ikerketak, Argitalpenak, Dokumentazio Zentroa

## Ikerketak

Azken urteetan geroz eta bistakoagoa da Administrazio Publikoen gizarte-errealitatea ezagutzeko interesa eta interes hori geroz eta konplexuagoak diren eta analisi ñabartu eta sofistikatuekin bat datozen ikuspegietarantz bilakatzen da. Azken helburua eraginkorragoak diren politika publikoen garapena erraztea da, gizarteko partaide diren sektore desberdinei erantzuteko. Gizarte-ikerketako jarduera publiko horren barruan, Emakundek *Urteko Txostenak egiten ditu Emakumeen eta Gizonen Euskadiko Egoeraren Inguruan*. Era berean, *Aginpide Publikoen Jardueraren Jarraipena* ere egiten du, haien *Proposamenen* eta *Egikarituriko Programa edo Jardueren* arteko oreka aztertzeko.

Durante el año 2005 se han elaborado:

– La *"Memoria de Actuación de los Poderes Públicos en 2004 en Ejecución del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*, proceso que requiere la colaboración de los distintos niveles de la Administración Vasca General, Territorial y Local a través de la cumplimentación de los cuestionarios de evaluación relativos a las actividades desarrolladas durante el año.

– El *"Informe Sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres 2004"*.

– *"Evaluación Global del III P.A.P.M.E.-E.G.P.P."*, que comprende el periodo 2000-2004.

– *"Diagnóstico de las Condiciones Laborales de las Empleadas de Hogar en la Comunidad Autónoma de Euskadi"*.

– Actualización del Informe *"Violencia Contra las Mujeres"*, en el que se aborda, fundamentalmente, el fenómeno del maltrato doméstico y las agresiones sexuales en la Comunidad Autónoma de Euskadi desde diferentes perspectivas.

– Informe sobre *"Evaluación del Cumplimiento de las Medidas para la Difusión y Puesta en Práctica del Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*.

Igualmente, se han analizado diversos estudios a fin de valorar el interés de impulsar y apoyar su publicación en consideración a su aportación al conocimiento de las relaciones de género, la participación social y la aportación histórica y cultural de las mujeres, etc.

## Publicaciones

El objetivo de las publicaciones de Emakunde es difundir los *Resultados de los Estudios*, los contenidos de los *Seminarios y Materiales o Guías de consulta* a la Administración, a los agentes sociales y a la ciudadanía con el fin de facilitar *Instrumentos y Guías de trabajo*.


























2005ean zehar honako hauek egin dira:

– *"III. PAPME-EGPP Plana Aplikatuz, Botere Publikoek 2004an Burututako Jarduera Txostena"*. Prozesu horrek euskal Administrazio nagusiaren, Lurraldekoaren eta Tokikoaren maila guztien arteko lankidetza eskatzen du, eta horretarako urtean zehar egindako jardueren inguruko ebaluazio-galdetegiak betetzen dira.

– *"Emakume eta Gizonen 2004ko Egoerari Buruzko Txostena"*.

– *"III. PAPME-EGPP Planaren Ebaluazio Osoa 2000-2004"* denboraldirako.

– *"Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Langileen Lanbaldintzen Diagnostikoa"*.

– *"Emakumeen Aurkako Indarkeria"* Txostena eguneratzea, non funtsean Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen fenomenoa jorratzen den, ikuspegi desberdinetatik.

– *"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu-erasoen Biktima Diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde Arteko Akordioa Hedatu eta Praktikan Jartzeko Neurrien Betetze-mailaren Ebaluazioari Buruzko"* Txostena.

Era berean, hainbat azterlan analizatu dira argitaratzea sustatu eta laguntzeko interesa baloratzeko, generoko erlazioen, gizarte-partaidetzaren eta emakumeen ekarpen historiko eta kulturalaren ezagutzari egiten dioten ekarpena kontuan izanik.

## Argitalpenak

Emakunderen argitalpenen bitartez, *Ikerketen Emaitzak, Mintegien Edukiak eta Materialen zein Kontsultarako Giden Edukiak Administrazioari, Gizarte-agenteei eta Herritarrei Helarazi nahi zaizkie, Lanerako Tresnak eta Gidak* errazteko.

Durante el año 2005 se han llevado a cabo las siguientes publicaciones:

– *"Cifras sobre la Situación de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi".* 4 Tomos: *Juventud, Edad Adulta, Tercera Edad y Participación Sociopolítica.*

– *"Congreso Internacional SARE 2004: Hacia Qué Modelo de Ciudadanía".*

– *"Curso de Formación y Acreditación de Consultoras en Igualdad de Mujeres y Hombres en el Ámbito Empresarial"*, en formato CD.

– *"La Coeducación en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Evolución y Estrategias de Futuro".*

– *"Guía Para un Proceso de Selección No Discriminatoria".*

– *"Memoria de Actuación de Emakunde 2004".* Esta publicación anual recopila las actuaciones principales que ha diseñado, impulsado, promovido y realizado Emakunde en ejecución del correspondiente *Plan Anual.*

– Se ha continuado con el mantenimiento y ampliación de la *Página Web de Emakunde.* En este sentido, se ha procedido a la creación y en su caso a la actualización de un buen número de apartados. Por otro lado, se ha iniciado la colaboración con la Oficina para la Modernización de la Administración y con la Dirección de Informática y Telecomunicaciones del Gobierno Vasco para la integración en el *Portal de Portales euskadi.net.*






## Centro de Documentación

El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece:

– Respuesta por carta, fax, correo electrónico, teléfono o en persona a las demandas de información.

Gráfico 17. **Número de demandas externas según el medio de consulta empleado.**





2005. urtean zehar, ondorengo lan hauek argitaratu dira:

– *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Egoerari Buruzko Zenbakiak"*. 4 liburuki: *Gazteria, Helduak, Adinekoak eta Partaidetza Sozio-politikoa.*

– *"SARE 2004 Nazioarteko Kongresua: Zein Herritartasun Eredurantz?".*

– *"Enpresa-eremuko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Prestakuntza eta Egiaztapenerako Ikastaroa"*, CD formatuan.

– *"Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkidetza. Eboluzioa eta Etorkizunerako Estrategiak".*

– *"Diskriminaziorik Gabeko Hautapen-prozesurako Gida".*

– *"Emakunderen Jarduera Txostena. 2004"*. Urteko argitalpen horrek Emakundek bere *Urteko Plana* aplikatzeko diseinatu, bultzatu, sustatu eta gauzatu dituen jarduera nagusiak biltzen ditu.

– *Emakunderen Web Orria* mantentzen eta handitzen jarraitu da. Ildo horretatik, hainbat atal sortu eta, hala dagokionean, eguneratu dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Modernizatzeko Bulegoarekin eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin elkarlanari ekin zio, *euskadi.net Atarien Atarian* sartzeko.

17. grafikoa. **Kanpo-eskaeren kopurua, erabilitako kontsulta-moduaren arabera.**




## Dokumentazio Zentroa

Dokumentazio-zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentzelanak egin ditu (fondoak eskuratzea, katalogazioa eta indexazioa, aldizkari-harpidetzak kontrolatzea eta aldizkarietako artikuluak hustea, bideoen grabazioa eta abar), bai eta Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileentzako arretatik eratortzen diren lanak ere:

– Informazio-eskaerei gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz eta aurrez aurre erantzutea.

– Asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos *"a la carta"*.

– Selección de noticias de prensa sobre un determinado tema.

– Préstamo de libros y videos, etc.

El Centro, además de la atención y préstamo al propio personal de Emakunde, que en 2005 ha sumado 136 consultas (con un total de 148 libros y 16 videos prestados), ha atendido 414 demandas externas, de las cuales un 23,18% (96 peticiones) procedían de otras Comunidades Autónomas. Cabe mencionar, también, que de las peticiones atendidas, 7 son procedentes de otros países. Por otro lado, las peticiones efectuadas a través del correo electrónico suponen ya un 60,14% del total.

Los volúmenes prestados al exterior han sido 179 libros y 70 videos.

Las consultas telefónicas atendidas han sido 850, con una distribución irregular a lo largo del año, muy significativa: el mayor número de llamadas se ha concentrado en noviembre, a diferencia del año anterior, en el que los meses de febrero y marzo registraban los máximos, lo que nos indica el creciente impacto mediático y la proyección social que ha adquirido en los últimos tiempos la efeméride del día *25 de Noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra la Mujer.*

Desde el año 2002 pueden consultarse *"on-line"*, desde la Web de Emakunde, los catálogos del centro. En la base de datos de biblioteca se han ingresado 767 nuevas referencias documentales a lo largo de 2005. Con las referencias de los materiales catalogados se han elaborado los *"Boletines de Novedades"* mensuales, que son objeto de distribución interna (al personal técnico del Instituto) y externa (a los Centros de Documentación que así lo solicitan), por medio del correo electrónico.

Gráfico 18. **Evolución del número de consultas externas clasificadas por meses.**



18. grafikoa. **Hilabeteka sailkatutako kanpo-kontsulten kopuruaren bilakaera.**




— Aholkularitza bibliografikoa eta *"eskatu ahalako"* zerrenda bibliografiko eta bideografikoak egitea.

— Gai jakin bati buruzko prentsa-albisteak hautatzea.

— Liburuen, bideoen eta abarren mailegua

Zentroak Emakundeko langileei arreta eta mailegua eskaini dizkie eta horiek, 2005ean, 136 kontsulta egin dizkiote (baita 148 liburu eta 16 bideo mailegatu ere); horrez gain, kanpoko 414 eskaerari erantzun die eta horietatik %23,18 (96 eskaera) beste Autonomia Erkidego batzuetakoak ziren. Adierazi behar da, halaber, erantzun diren eskaeretatik 7 beste herrialde batzuetakoak zirela. Bestalde, posta elektronikoz egindako eskaerak dagoeneko guztien %60,14 dira.

Kanpora aurkeztutako bolumenak 179 liburu eta 70 bideo izan dira.

Telefonoaren bitartez egindako kontsultak 850 izan dira, urtean zehar banaketa desberdinarekin, oso esanguratsua: dei gehienak azaroan egin dira, aurreko urtean ez bezala, 2004an dei gehienak otsailean eta martxoan izan baitziren. Horrek adierazten du azken garai honetan *azaroaren 25eko* efemerideak gero eta inpaktu handiagoa duela komunikabideetan eta gizartean, egun hori *Emakumearen Aurkako Indarkeria Desagertzeko Nazioarteko Eguna* baita.

2002. urtetik, Zentroko katalogoak *"linean"* kontsultatu daitezke, Emakunderen Web gunetik. 2005. urtean zehar, liburutegiko datu-basean 767 erreferentzia dokumental berri sartu dira. Katalogatutako materialen erreferentziekin egiten dira erakundearen barruan (erakundeko langile teknikoei) eta kanpoan (eskatzen duten Dokumentazio-zentroei) posta elektronikoaren bitartez banatzen diren hileroko *Berritasun Buletinak*.

En 2005 también se han abordado tareas de organización interna para un mejor aprovechamiento y conservación de la documentación existente, como por ejemplo el control de la accesibilidad a los materiales anteriores a 1996, con exclusión del préstamo de los ejemplares únicos, garantizando así la integridad de los documentos ya descatalogados o con dificultades de reposición.

Por otra parte, el Centro de Documentación ha continuado elaborando la sección *"Mujeres en Red"* para la *Revista Trimestral Emakunde*, en la que se proponen diferentes direcciones web para ampliar información sobre el tema central de cada número de la *Revista*.

En el marco de colaboración con otros Centros de Documentación del Estado, cabe destacar la participación en las actividades y proyectos desarrollados por la *Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres*, como el *"Catálogo Colectivo de Revistas"* (proyecto ambicioso aún en curso que pretende reunir los títulos de publicaciones periódicas, tanto vivas como muertas, de todos los centros asociados), o como los trabajos colectivos de revisión y actualización de las herramientas de indización específicas del tema *"Mujer"* (Tesauro).

Otra tarea que se ha puesto en marcha este año con personal del Centro es la organización del Archivo de Emakunde, para lo que se ha elaborado un *Proyecto Organizativo* viable y se ha ejecutado una primera fase del mismo (inventario), con la intención de darle la continuidad necesaria en años sucesivos.

Gráfico 19. **Evolución mensual del número de consultas telefónicas (2004-2005).**



19. grafikoa. **Telefono bidezko kontsulta-kopuruak hilero izan duen bilakaera. (2004-2005).**




Dagoen dokumentazioa hobeto erabili eta zaintzeko barne-antolamenduko lanak ere egin dira 2005ean zehar, hala nola 1996aren aurreko materiala maileguan hartzeko kontrola. Horren salbuespena ale bakarren mailegua da, deskatalogatutako edo berritzeko zailtasunak dituzten dokumentuen osotasuna bermatzeko xedez.

Beste alde batetik, Dokumentazio Zentroak *"Emakunde" Hiruhileko Aldizkariarentzako "Emakumeak Sarean"* atala egiten du eta bertan web gune desberdinen helbideak proposatzen dituzte *Aldizkariaren* zenbaki bakoitzaren gai nagusiari buruzko informazio gehiago aurkitzeko.

Estatuko beste Dokumentazio-zentro batzuen lankidetzaren esparruan, azpimarratu behar da *Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak* egindako jarduera eta proiektuetan parte hartu dela, adibidez, *"Aldizkarien Katalogo Kolektiboan"* (oraindik egikaritzen ari den eta kide diren zentro guztietako aldizkarien izenburuak bildu nahi dituenean, hala oraindik bizirik daudenenak nola hildakoenak), edo *"Emakume"* gaia indizatzeko berariazko tresnak (Thesaurus) berrikusi edo eguneratzeko lan kolektiboetan.

Zentroko langileek aurten abian jarri duten beste zeregin bat Emakunderen Artxibategiaren antolamendua izan da. Horretarako *Antolamendu-proiektu* bideragarria egin eta haren lehenengo fasea gauzatu da (inbentarioa), datozen urteetan behar duen jarraipena emateko helburuz

# VIII. Relaciones con el Exterior, Estado e Internacional

## Con el Estado

Emakunde ha participado de manera continuada en la reunión de la Comisión Sectorial del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales en la que están representados, además del citado Ministerio, los diferentes Departamentos a los que están adscritos los Organismos de Igualdad en las Comunidades Autónomas. En este marco, y con relación a la información que se elabora para el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales del Estado sobre *Programas y Actividades* desarrolladas así como sobre los recursos existentes en la Comunidad en el ámbito de la igualdad de oportunidades, cabe destacar:

– La participación en la elaboración de la *"Memoria de Actuaciones Contra la Violencia de Género 2004"*, a través de la recogida de información y cumplimentación de las

# VIII. Kanpo Harremanak; Estatukoak eta Nazioartekoak

## Estatukoak

Emakundek modu jarraituan parte hartu du Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Sektore Batzordean eta bertan, aipaturiko Ministerioaz gain, Autonomia-erkidegoetako Berdintasun-erakundeei atxikita dauden Sail desberdinak ordezkatuak daude. Esparru horretan, eta Erakundeak garaturiko *Programa* eta *Jarduerei* buruz eta Erkidegoan eta aukera-berdintasunaren esparruan dauden baliabideen inguruan Estatuko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarentzat egiten duen informazioari dagokionez, honakoak azpimarratu behar dira:

– *"Genero Indarkeriaren Aurkako 2004ko Jardueren Memoria"* lantzen parte hartu izana, informazioa bildu eta gure Erkidegoan gai horren inguruan egindako jardueren

fichas de evaluación en las que se aportan datos sobre las actividades realizadas en nuestra Comunidad en dicha materia.

— La elaboración de un diagnóstico sobre el impacto de la violencia contra las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, tal y como establece la disposición adicional decimotercera de la *Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre*, de medidas de protección integral contra la violencia de género.

Emakunde ha participado, asimismo, en diferentes foros, reuniones de trabajo, intercambio de experiencias, documentación, etc., tanto con el Instituto de la Mujer de la Administración Central como con los Institutos y Organismos similares de las otras Comunidades Autónomas.

En el marco de la colaboración con Institutos y Organismos de las distintas Comunidades Autónomas, resaltamos la participación en el *"Encuentro Intercambia 2005"*, organizado por el Instituto de la Mujer y el CIDE (Centro de Investigación y Documentación Educativa) del Ministerio de Educación y Ciencia en Madrid en octubre de 2005. A partir de este *Encuentro* en el que participaron representantes de las Consejerías de Educación y de los Organismos de Igualdad de las diferentes Comunidades Autónomas se constituyó la *Red Intercambia para el Impulso e Intercambio de Iniciativas en Coeducación*.

## Marco Internacional y Cooperación al Desarrollo



En relación con la Cooperación Internacional se mantiene de forma continuada el intercambio de información con otros Organismos y Centros de Investigación que trabajan en el ámbito de la igualdad de oportunidades facilitando al mismo tiempo el contacto con personas u Organismos de nuestra Comunidad.

En este marco, Emakunde participó en la *"49 Sesión de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer (CSW)"*, más conocida como *"Beijing +10"*, celebrada en la sede de Naciones Unidas en Nueva York entre el 28 de febrero y el 11 de marzo de 2005. Esta sesión de la *CSW* sirvió para examinar los progresos realizados desde la *"IV Confe-*

inguruko datuak eskaintzen dituzten ebaluazio-fitxak betetzearen bitartez.

– Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen aurkako indarkeriaren inpaktuaren diagnostikoa egitea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko *1/2004 abenduaren 28ko Lege Organikoaren* hamahirugarren xedapenak jasotzen duen legez.

Era berean, Emakundek foro, lan-bilera, esperientzia-elkartruke, dokumentazio eta beste hainbat jardueratan parte hartu du, hala Administrazio Zentraleko Emakumearen Institutuarekin nola beste Autonomia Erkidegoetako Institutu eta Erakunde desberdinekin.

Autonomia Erkidego desberdinetako Institutu eta Erakunde desberdinekin izandako lankidetzaren esparruan, ondoko ekimenetan parte hartu izana azpimarratzen dugu: *"Intercambia 2005 Topaketa"*, Emakumearen Institutuak eta Madrilgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko CIDEk (Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazioko Zentroa) antolatua, 2005eko urrian. *Topaketa* horretan Autonomia-erkidegoetako Hezkuntza Sailetako eta Berdintasun-organismoetako ordezkariek hartu zuten parte, eta harrezkero *Hezkidetza-Ekimenak Elkarri Trukatzea Bultzatzeko Intercambia Sarea* eratu zen.



## Nazioarteko Esparrua eta Garapenerako Lankidetza

Nazioarteko Lankidetzari dagokionez, Aukera-berdintasunaren alorrean jarduten duten beste Erakunde eta Ikerketa Zentro batzuekin informazio-trukea izaten jarraitzen dugu. Aldi berean, Erakundeak gure Erkidegoko pertsona edo erakundeekiko harremana errazten du.

Esparru horretan, Emakundek *"Beijing + 10 Izenez Ezaguna den Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren 49. Ekitaldian"* parte hartu zuen Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan, 2005eko martxoaren 28tik 11ra bitartean. *CSWren* saio hark 1995ean Txinako hiriburuan *"Emakumeen IV. Konferentzia"* egin zenetik hona egindako aurrerapena aztertzeko balio

*rencia de Mujeres"* realizada en la capital china en 1995, donde se aprobó la *"Plataforma de Acción de Beijing (PAM)"*, un amplio *Programa* basado en doce áreas para erradicar las desigualdades de género y avanzar en la situación jurídica, política, social y económica de las mujeres.

Emakunde, asimismo, mantiene contacto y realiza un intercambio sistemático de información con las Instituciones Europeas, tanto con la propia Comisión Europea como con el Parlamento y el Consejo. Igualmente, se mantienen relaciones con Instituciones responsables de las políticas para la igualdad de mujeres y hombres de diferentes Regiones y Estados Europeos.

En este contexto, una representación de Emakunde asistió a la *"X Reunión"* del Comité de Puesta en Marcha del *"Programa Estrategia Marco Comunitaria en Materia de Igualdad entre Hombres y Mujeres"* de la Comisión Europea, celebrada el 6 de julio de 2005 en Bruselas. Por otro lado, Emakunde estuvo también presente en el *"IV Encuentro sobre el Enfoque de Género en las Políticas Públicas"* celebrado en Estrasburgo el 27 de septiembre de 2005, donde comunicó, ante expertos y expertas en la materia, su experiencia en *Presupuestos y Género* llevada a cabo en el Gobierno Vasco.

En el mismo contexto, y dentro del *Proyecto Europeo "TAGS: Acciones Transnacionales para la Superación de los Estereotipos de Género"*, el Instituto participó en tres *Encuentros Transnacionales* en los que se reunieron responsables de igualdad de Italia, Bulgaria y Euskadi:

- *"I Encuentro Transnacional"*, celebrado en mayo de 2005 en Donostia-San Sebastián.

- *"II Encuentro Transnacional"*, celebrado en septiembre de 2005 en Florencia (Italia).

- *"III Encuentro Transnacional"*, celebrado en noviembre de 2005 en Vidin (Bulgaria).

En relación con la Cooperación al Desarrollo, durante el año 2005, Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer ha recibido di-




izan zuen. Konferentzia hartan *"Beijingeko Ekintza Plataforma (PAM)"* onartu zen, hots, hamabi ataletan oinarritutako *Programa* luze eta zabala, genero-desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen egoera juridiko, politiko, sozial eta ekonomikoan aurrera egiteko xede zuena.

Halaber, Emakunde harremanetan egoten da Europar Erakundeekin (Europako Batzordearekin, Parlamentuarekin eta Kontseiluarekin), eta sistematikoki informazioa elkartrukatzen du erakunde horiekin. Era berean, erlazioak ditu Europako hainbat Eskualde eta Estatutako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politiken ardura duten hainbat Erakunderekin.

Testuinguru horretan, Emakundeko ordezkaritza batek parte hartu zuen *Europako Batzordeko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Alorreko Komunitateko Esparru Estrategiaren Programa* abian jartzeko batzordearen *"X. bileran"*, 2005eko uztailaren 6an, Bruselan. Bestalde, *"Politika Publikoen Genero Ikuspegiari Buruzko IV. Topaketan"* ere izan zen Emakunde, Estrasburgon, 2005eko irailaren 27an. Bertan, gaian aditu direnen aurrean, Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman duen *Genero-aurrekontuen* inguruko esperientziaren berri eman zuen.

Testuinguru berean, eta Europako *"TAGS: Genero-estereotipoak Gainditzeko Nazioz Gaindiko Ekintzak" Europar Programaren* barnean, Erakundeak Italia, Bulgaria eta Euskadiko berdintasun-arduradunak bildu zituen nazioz gaindiko hiru *Topaketatan* parte hartu zuen:

– 2005eko maiatzean Donostian izandako *"Nazioz Gaindiko I. Topaketan"*.

– 2005eko irailean Florentzian (Italia) izandako *"Nazioz Gaindiko II. Topaketan"*.

– 2005eko azaroan Vidin-en (Bulgaria) izandako *"Nazioz Gaindiko III. Topaketan"*.

Garapenerako Lankidetzari dagokionez, 2005. urtean zehar, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak hainbat era-

versas visitas procedentes, principalmente, de Latinoamérica, que han permitido el intercambio de información y experiencias con el fin de analizar la posibilidad de colaboraciones futuras con nuestra Comunidad. Ha facilitado, asimismo, información sobre los ámbitos de actuación, recursos y vías de contacto con las ONGDs de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



En este punto, cabe destacar la relación mantenida con las representantes de la ONGD afgana Hawca y con el Forum Feminista María de Maeztu, quienes iniciaron su trabajo conjunto a propuesta de Emakunde. Este año en la sede del Instituto se han realizado las presentaciones (el 16 de febrero y el 22 de noviembre) de dos *Proyectos* promovidos por estas ONGDs. En el transcurso de la última, se presentó la *Campaña "Golha" (Flores)* de apoyo al desarrollo de la Red de Asociaciones de Mujeres Afganas y de difusión del trabajo desarrollado por ésta. Dicha *Campaña* se concretaba en dos actividades: por una parte, la presentación de un documental sobre la situación actual de las mujeres en ese País y el trabajo de las Asociaciones de Mujeres y, por otra, la celebración de *Reuniones* con Organizaciones de Mujeres al objeto de promover el contacto, el intercambio de experiencias y una posible colaboración futura.

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer ha mantenido, también, un contacto regular con ONGDs vascas a fin de facilitar contactos y asesorar en relación con la inclusión de la perspectiva de género en la elaboración de sus *Proyectos de Cooperación*. En este sentido, se ha seguido impulsando el cumplimiento de los compromisos adquiridos en la *"Plataforma de Acción de la IV Conferencia Mundial de las Mujeres"* celebrada en Beijing en 1995 y en la *"Conferencia sobre Población"* celebrada en el Cairo, especialmente en los aspectos relativos a salud reproductiva.

Como demanda de las Organizaciones de Mujeres presentes en la primera *"Conferencia Mundial de las Naciones Unidas sobre las Mujeres"*, celebrada en México en 1975, la Asamblea General de las Naciones Unidas creó el *"Fondo de Desarrollo de las Naciones Unidas para las Mujeres UNIFEM"*. La Directora del *Programa Regional* para Brasil y



kundetako ordezkari hartu ditu (gehienak, Latinoamerikatik etorritakoak) eta horrek informazioa eta esperientziak elkartrukatzeko aukera eman du, etorkizunean gure Erkidegoarekin kolaboratzeko aukera aztertzeko. Orobat, Emakundek Erkidegoko GGKEen esku-hartzeko esparruei, baliabideei eta haiekin harremanetan sartzeko bideei buruzko informazioa jarri du bisitari horien eskura.

Puntu horretan azpimarratu behar da Afganistango Hawca GGKEarekin eta María de Maeztu Forum Feministarekin izandako erlazioa, horiek beren baterako jarduera Emakundek proposatuta hasi baitzuten. Aurten Erakundearen egoitzan GGKE horiek sustaturiko bi *Proiekturen* aurkezpenak egin dira (otsailaren 16an eta azaroaren 22an). Azken ekitaldi horretan aurkeztu zen *"Golha" (Loreak)* Emakume Afganiarren Elkarteen sarearen garapena laguntzeko eta horrek egindako lana hedatzeko *Kanpaina*. Kanpaina hori bi jardueratan zehazten zen: alde batetik, Herrialde horretako emakumeen egungo egoerari buruzko dokumentala aurkeztea eta, bestetik, Emakume-elkarteekin *Bilerak* egitea kontaktua, esperientzien elkartrukea eta etorkizuneko balizko lankidetza sustatzeko.

Emakunde euskal GGKEekin ere egon da harremanetan, harremanak errazteko eta aholku emateko, *Lankidetza-proiektuak* egiteko garaian genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez. Zentzu horretan, 1995ean Beijingen izandako *"Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren Ekintza Plataforman"* eta Kairoko *Biztanleriari buruzko Konferentzian* hartutako konpromisoen betetzea bultzatzeari eutsi zaio, ugaltze-osasunarekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, bereziki.

Nazio Batuek Emakumeei *"Buruz Egindako Lehenengo Mundu Konferentzia"* Mexikon izan zen, 1975ean, eta bertan esku hartu zuten emakume-erakundeen eskariz, Nazio Batuetako *"Batzar Nagusiak Emakumeentzako Nazio Batuen Garapen Funtsa (UNIFEM)"* sortu zuen. UNIFEMeko Brasil eta Hegoamerikarako *Eskualde Programako* Zuzen-

Cono Sur de UNIFEM, Ana Falú, visitó Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer el 16 de noviembre de 2005 y, en el marco de la visita, se esbozaron una serie de *Colaboraciones* que se materializarán a lo largo del año 2006.

La Directora y la Secretaria General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer participaron, asimismo, en los *Actos Institucionales* organizados con motivo de la visita del presidente de la RASD y el 26 de octubre de 2005 recibieron en la sede del instituto a la Secretaria de Asuntos Sociales y Emancipación de las Mujeres del Gobierno de la República Árabe Saharaui Democrática, Mahfuda Mohamed Rahal.

## Protocolo de Cooperación y Colaboración entre Emakunde/ Instituto Vasco de la Mujer y la Unión Nacional de Mujeres Saharauis

En el marco del *"Protocolo de Cooperación y Colaboración entre el Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer y la Unión Nacional de Mujeres Saharauis"*, suscrito en 1999, se establecieron diversas líneas de actuación dirigidas a fomentar la sensibilización y el conocimiento de la población vasca sobre la labor que realiza la Unión Nacional de Mujeres Saharauis (UNMS). En este sentido, el 27 de mayo de 2005 se celebró la *Reunión de Seguimiento y Coordinación* de las actividades que se llevan a cabo, en la que se contó con la participación de la Secretaria General de la UNMS, Fatma El Medhi y en la que dio cuenta del trabajo desarrollado por la Unión para conseguir la sensibilización, implicación y compromiso de las mujeres saharauis en incrementar su presencia en el Secretariado General del Frente Polisario, en su Parlamento y en las Instituciones del Gobierno de la RASD en los Campamentos de refugiadas y refugiados.

La Secretaria General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, en el marco de este *Convenio*, participó en un *Viaje a los Territorios Ocupados de Sahara*, el 13 de julio de 2005. En el mismo tomaron parte una treintena de personas representantes del Gobierno Vasco, del Parlamento, Alcaldías, Organizaciones que trabajan en la defensa de los derechos humanos, Asambleas Locales y Medios de Comunicación. Las autoridades marroquíes no permitieron que las personas participantes en este viaje desembarcaran en el Aiun y, por ello, tras una hora de negociaciones, tuvieron que regresar al aeropuerto de Las Palmas de Gran Canaria, lugar del que habían partido.

dari Ana Falú Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundean izan zen bisitan, 2005eko azaroaren 16an, eta bisitaldi horretan hainbat *Lankidetza* zirriborratu ziren, 2006an zehar gauzatuko direnak.

Halaber, RASDeko (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko) lehendakariak egindako bisita zela-eta izandako *Erakunde-ekitaldietan* Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak eta Idazkariak parte hartu zuten, eta 2005eko urriaren 26an, RASDeko Gobernuko Gizarte Gai eta Emakumeen Emantzipazioko Idazkari Mahfuda Mohamed Rahal hartu zuten.

## Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren arteko Lankidetzarako Protokoloa

1999. urtean, *"Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea/Emakunderen eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren Arteko Lankidetzarako Hitzarmena"* izenpetu zen eta, horren esparruan, esku-hartzeko ildo batzuk ezarri ziren, euskal herritarren artean sentsibilizazioa eta ezagutza sustatzeko, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalak (UNMS) aurrera daraman lanaren inguruan. Zentzu horretan, 2005eko maiatzaren 27an, burutzen diren jardueren Segimendu- eta Koordinazio-bilera egin da UNMSko idazkari Nagusi Fatma El Medhiren parte-hartzearekin. Bilera horretan, Fronte Polisarioko Idazkaritza Nagusian, Parlamentuan eta errefuxiatu Esparruetako RASDeko Gobernuko Erakundeetan Saharako emakumeen partaidetza handitzeko Batasunak sentsibilizazioa, inplikazioa eta konpromisoa lortzeko egindako lanaren berri eman du El Medhik.

Hitzarmen horren esparruan, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusiak Saharako *Lurralde Okupatuetara egindako Bidaia* batean parte hartu zuen, 2005eko uztailaren 13an. *Bidaian* hogeita hamar bat lagunek parte hartu zuten, Eusko Jaurlaritza, Legebiltzarra, Alkatetzak, giza eskubideen alde lanean diharduten Elkarteak, Tokiko Biltzarrak eta Komunikabideak ordezkatuz. Marokoko agintariek ez zuten baimendu bidaian zihoazenak el Aiunera iristerik eta, horregatik, ordubeteko negoziazioen ostean, Kanaria Handiko Las Palmaseko aireportura itzuli behar izan zuten, bertatik abiatuak baitziren.

Por otra parte, también se participó en las reuniones de la Comisión Ejecutiva del *"Proyecto de Casas de la Mujer"* que se está desarrollando entre la Unidad de Coordinación de la Cooperación Vasca Municipal existente en Euskal Fondoa, los Ayuntamientos de Basauri, Bilbao, Ermua, Getxo y Vitoria-Gasteiz. Se acudió a todas las *Reuniones* y se participó en un *Viaje* al terreno, del 24 de septiembre al 1 de octubre de 2005. Los objetivos del *Viaje* fueron los siguientes:

– Identificar y visibilizar las diferentes tareas que realizan mujeres y hombres en los Campamentos.

– Facilitar el que las mujeres tomen conciencia sobre las consecuencias de la división sexual del trabajo para las mujeres.

– Identificar y visibilizar las diferencias de acceso y control de los recursos y beneficios.

– Facilitar la toma de conciencia sobre las consecuencias de las diferencias de acceso y control de recursos para las mujeres.

– Visibilizar las diferencias existentes en cuanto a la participación política en puestos de toma de decisiones.

– Reflexionar sobre las consecuencias de las diferencias en cuanto a participación política.

– Analizar los obstáculos que encuentran.

– Formular estrategias para corregir esa situación.

– Formular las necesidades prácticas y los intereses estratégicos de la UNMS en la Wilaya de Smara.

– Plantear, conjuntamente con las mujeres saharauis, los *Proyectos* a acometer.

Con el fin de impulsar y dinamizar la creación de este Grupo de Trabajo Estable y con la colaboración de la Asociación

Bestalde, *"Emakumearen Etxea Proiektuko"* Exekutiba Batzordearen bileretan ere parte hartu du Erakundeak, Euskal Fondoan dagoen Euskal Udalen Lankidetzaren Koordinazio Unitatearekin eta Basauri, Bilbo, Ermua, Getxo eta Gasteizko Udalekin batera. *Bilera* guztietan parte hartu zuen eta irailaren 24tik urriaren 1era bitartean bertara egindako *Bidaian* ere izan zen. *Bidaiaren* helburuak honako hauek izan ziren:

— Emakumeek eta gizonek Esparruetan egiten dituzten lanak identifikatu eta ikusgarri egitea.

— Lana sexuaren arabera banatzeak emakumeei dakarzkien ondorioez ohartu daitezen erraztea.

— Baliabideak eta onurak eskuratu eta kontrolatzerakoan dauden desberdintasunak identifikatu eta ikusgarri egitea.

— Baliabideak eskuratu eta kontrolatzeko desberdintasunek emakumeei dakarzkien ondorioez ohartu daitezen erraztea.

— Erabakiak hartzeko postuetan parte hartzearen inguruan dauden desberdintasunak ikusgarri egitea.

— Partaidetza politikoaren inguruan dauden desberdintasunek dakartzan ondorioei buruz gogoeta egitea.

— Aurkitzen dituzten oztopoak aztertzea.

— Egoeran hori zuzentzeko estrategiak formulatzea.

— Smarako Wilayako UNMSren behar praktikoak eta interes estrategikoak formulatzea.

— Ekin beharreko *Proiektuak* planteatzea, Saharako emakumeekin batera.

Lan-talde Egonkor horren sorrera bultzatu eta dinamizatzeko helburuz, eta Arabako RASDen Lagunen Elkartearen

de Amigas y Amigos de la RASD en Álava, el 29 octubre se convocó una *Reunión* en la sede de Emakunde. En la misma se contó con la presencia de Fatma El Mehdi y se invitó a representantes de Hegoa–Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la Universidad del País Vasco, de la Asamblea de Mujeres de Ermua, de la Asociación de apoyo al Pueblo Saharaui en Tres Cantos (Madrid) y de la Asociación de Amigas y Amigos de la RASD en Álava.

El objeto de la *Reunión* era, por una parte, preparar el Taller Mujer de la E.U.C.O.C.O., es decir, elaborar un *Programa* con los contenidos y cronograma de las sesiones de trabajo y, por otra, constituir el germen de la *Red Estable de Trabajo y Apoyo* a la Unión Nacional de Mujeres Saharauis.



Por último, cabe señalar que Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer ha proseguido en su trabajo de sensibilización a la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre la situación del Pueblo Saharaui y más en concreto de sus mujeres y ha propiciado *Contactos* entre las Asociaciones de Mujeres de nuestra Comunidad y los Grupos de Mujeres de las distintas Dairas y Wilayas de los Campamentos de refugiadas y refugiados en Tindouf, al objeto de estrechar las relaciones y propiciar vías de colaboración más directas y cercanas. En este sentido, se ha informado a las Asociaciones y Grupos de Mujeres con domicilio social en la Comunidad Autónoma de Euskadi para que participen de forma activa en la *II Caravana Vasca con el Sahara "Alimenta Una Esperanza"*, desarrollada a finales de 2005.



lankidetzarekin, urriaren 29an Emakunderen Bilera egiteko deialdia egin zen. *Bilera* horretan Fatma El Medhi izan zen, eta hainbat ordezkari ere azaldu ziren gonbidatuta, Hegoa-Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Garapen eta Lankidetzari buruzko Ikerketa Institututik, Ermuko Emakumeen Batzarretik, Tres Cantoseko (Madril) Saharako Herria Laguntzeko Elkartetik eta Arabako RASDen Lagunen Elkartetik.

*Bileraren* helburua zen, alde batetik, EUCOCOko Emakumearen Mintegia prestatzea, hots, lan-saioen edukiekin eta kronogramarekin *Programa* bat egitea eta, bestetik, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari laguntzeko Lan- eta Laguntza-sare egonkorraren oinarria osatzea.



Azkenik adierazi behar da Emakundek lanean jarraitu duela Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria Saharako Herriaren eta, bereziki, bertako emakumeen egoeraz sentikor bihurtzeko. Ildo horretatik, Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume-Elkarteen eta Tindoufeko Errefuxiatu-esparruetako Daira eta Wilaya desberdinetako Emakume-taldeen arteko kontaktuak erraztu ditu, harremanak estutu eta lankidetza-bide zuzen eta hurbilagoak errazteko helburuarekin. Ildo horretatik, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Emakume-elkarte eta -taldeei dei egin zaie 2005aren bukaeran egindako *"Itxaropena Elikatu"* izeneko *Sahararen Aldeko II. Euskal Karabanan* modu aktiboan parte hartu dezaten.


GANA COMO UNA MUJER*
*Una mujer gana de media en Euskadi un 26% menos que un hombre
Para un trabajo de igual valor, igual salario.
EMAKUME-SOLDATA DU*
*Euskadin, emakumezkoek gizonezkoek baino %26 gutxiago irabazten dute, batez beste
Balio bereko lanagatik, soldata berbera.